

**ATZERRITARRENTZAKO ERRUSIERAREN  
IRAKASKUNTZA II: GENTIBOAREN  
ERABILERA PREPOSIZIORIK GABE**

Naiara Beraciertto Zulaika

Itzulpengintza eta Interpretazioa

2019/2020 ikasturtea

Tutorea: Nerea Madariaga Pisano

Jakintza-arloa: Eslaviar Filologia

Saila: Ikasketa Klasikoak

## LABURPENA

Gradu Amaierako lan honetan, errusiera atzerriko hizkuntza gisa irakatsiko duen lekuan jarri eta errusieraren gramatikako atal zehatz bat landuko da: genitiboaren erabilera preposiziorik gabe. Gaiari heldu baino lehen, lanaren helburua zein den eta horretarako erabili den metodologia azalduko da. Era berean, sarrera gisa, genitiboa nola deklinatu behar den azaltzen duten hainbat taula aurkeztuko dira: izenen eta adjektiboen eraketa bai singularrean, baita pluralean ere. Lehenik eta behin, genitiboaren erabilera preposiziorik gabe nolakoa den landuko da. Horretarako, hainbat azpiataletan banatu da atala, egoera bakoitzaren arabera azalpen desberdinak eskainiz. Jarraian, gaur egun errusiera irakasteko eskura ditugun baliabideak aztertuko dira. Baliabide horien artean, irakaskuntzarako ohikoak diren eskuliburu orokorrak aztertuko dira: *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2009, 2011 eta 2012), *Поехали!* (Тхернухов, 2009); baina baita eskuliburu espezifikokoak ere: *Russian genitive: its forms and usage* (N. Ryan, 2008), *Какой падеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление* (Velitxko, 2008) eta *Casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993). Horiez gain, baliagarriak izan daitezkeen beste mota bateko liburuak aztertuko dira, hots, gramatika praktikoak: *El ruso. Gramática práctica* (Pulkina, 2000) eta *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Glazunova, 2007). Liburu bakoitzak gure gaia nola azaltzen duen (azalpen gramatikalak ematen dituen, adibideak egokiak diren ala ez, nahikoa al den emandako azalpenekin...) eta zer motatako ariketak eskaintzen dituen ikusiko da. Bestalde, liburu horiek aurkezten dituzten zailtasun eta arazoei zein irtenbide eman landuko da. Behin hori aztertuta, ondorio batzuk aterako dira eta aztertutako errusierako eskuliburuak aukeratutako gaia azaltzeko baliagarriak diren ala ez baloratuko da. Nahiz eta balorazio orokor bat egingo den, kontuan izan behar da ikasleen ezaugarrien arabera aldatu egiten dela irakasteko modua, eta, ondorioz, erabiliko diren baliabideak ere.

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	4
<b>1.1. HELBURUA</b>	4
<b>1.2. METODOLOGIA</b>	4
<b>1.3. GENITIBO KASUA ETA BERONEN ERAKETA ERRUSIERAZ</b>	4
<b>2. GENITIBOAREN ERABILERA</b>	9
<b>2.1. GENITIBOAREN ERABILERA SUBSTANTIBOEKIN</b>	9
2.1.1. Edukitzailea eta zati-osotasuna	9
2.1.2. Agentea	9
2.1.3. Tema	9
<b>2.2. GENITIBOAREN ERABILERA ADJEKTIBOEKIN</b>	10
2.2.1. Genitiboa beti eskatzen duten adjektiboak	10
2.2.2. Konparazio-mailako genitiboa	10
<b>2.3. GENITIBOAREN ERABILERA KUANTIFIKATZAILEEKIN</b>	10
2.3.1. Zenbatzaileekin	10
2.3.2. Bestelako kuantifikatzaileekin	12
2.3.3. Erabilera partitiboa	13
2.3.4. Kantitatea adierazten duten aditzekin	14
<b>2.4. GENITIBOAREN ERABILERA EZEZTAPENAREKIN</b>	14
2.4.1. Ezeztapena perpaus existentzial-posesiboetan	15
2.4.2. Ezeztapena objektuekin	17
<b>2.5. GENITIBOAREN ERABILERA ADITZEKIN</b>	19
2.5.1. Genitiboa beti eskatzen duten aditzak	19
2.5.2. Aditz intentsionalak	19
<b>2.6. RKI IKASLEENTZAKO ZAILTASUNEN LABURPENA</b>	20
<b>3. MATERIAL DIDAKTIKOAREN ANALISI PRAKTIKOA</b>	22
<b>3.1. ESKULIBURU OROKORRAK</b>	22

3.1.1. <i>Поехали!</i>	22
3.1.2. <i>Русский язык: 5 элементов</i>	27
<b>3.2. ESKULIBURU ESPEZIFIKOAK</b>	31
3.2.1. <i>Russian genitive: its forms and usage</i>	31
3.2.2. <i>Какой падеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление</i>	34
3.2.3. <i>Casos y preposiciones en el idioma ruso</i>	36
<b>3.3. ARIKETA LIBURUAK ETA GRAMATIKA PRAKTIKOAK</b>	38
3.3.1. <i>El ruso. Gramática práctica</i>	38
3.3.2. <i>Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология</i>	41
<b>4. ONDORIOAK</b>	45
<b>5. ERREFERENTZIAK</b>	47

## **1. SARRERA**

### **1.1. HELBURUA**

Gradu Amaierako lan honen helburu nagusia errusiera atzerritar hizkuntza gisa irakasten duenaren lekuan jarri eta errusieraren kasu gramatikal zehatz bat, genitiboa, irakastean ikasleak zer-nolako zailtasunak izan ditzakeen identifikatu eta horiei aurre egiteko zer baliabide ditugun aztertzea da, RKI (*Русский язык Как Иностранный*, errusiera atzerritar hizkuntza gisa) izanik. Horretarako, ezinbestekoa izango da ikasle taldearen ezaugarriak identifikatzea, irakasteko modua eta materiala baldintzatuko dituztelako.

### **1.2. METODOLOGIA**

Bi atal nagusitan banatuko da lana: deskribapen teorikoa eta analisi praktikoa. Lehenengo atalean, preposiziorik gabeko genitiboaren erabilera aztertuko da. Horretarako, honako liburu hauetaz baliatuko gara: *Russian Grammar* (Levine, 2009), *El ruso. Gramática práctica* (Pulkina, 2000) eta *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Glazunova, 2007). Bigarren atalean, aldiz, aurreko atalean azaldutakoa kontuan hartuta, analisi praktikoa bat egingo da, hau da, RKI ikasle batek gaur egun eskura zer-nolako eskuliburuak dituen aztertuko dira, hala nola: *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2009 eta 2011), *Поехали!* (Тхерныхов, 2009), *Russian genitive: its forms and usage* (N. Ryan, 2008), *Какой надеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление* (Velitxko, 2008), *Casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993), *El ruso. Gramática práctica* (Pulkina, 2000) eta *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Glazunova, 2007) eta bertan aurki daitezkeen azalpenak baloratuko dira.

### **1.3. GENITIBO KASUA ETA BERONEN ERAKETA ERRUSIERAZ**

Genitiboaren zailtasunekin hasi baino lehen, beroren eraketa errusieraz erakusten duten hiru taula aurkeztuko dira; lehendabiziko biek izenak eratzeko balio dute (lehena singularrean eta bigarrena pluralean), eta hirugarrenak, aldiz, adjektiboak nola eratu erakutsiko du; bai singularrean, bai pluralean.

Jarraian aurkezten den taulak izenen eraketa genitiboaren kasuan adierazten du. Bertan, izenak hiru zutabetan desberdindurik daude; maskulinoa, femeninoa eta neutroa. Gainera, argiago geratzeko eraketa, adibideen zutabe bat gehitu da.

Izenaren generoa	Nominatibo singularra ⇒ Genitibo singularra	Adibideak
Maskulino singularra	kontsonantea ⇒ konts. + a  й ⇒ я  ь ⇒ я	брат ⇒ брата  герой ⇒ героя  учитель ⇒ учителя
Femenino singularra	а ⇒ ы  я ⇒ и  ь ⇒ и	вода ⇒ воды  неделя ⇒ недели  дверь ⇒ двери
Neutro singularra	о ⇒ а  е ⇒ я  мя ⇒ мени	лицо ⇒ лица  море ⇒ моря  время ⇒ времени

1. Taula. Izen singularren eraketa genitiboan.

Taula honetan ere aurreko informazio bera eta egitura bera ageri da, baina kasu honetan izenak pluralean daude<sup>1</sup>.

Izenaren generoa	Nominatibo plurala ⇒	Adibideak
------------------	----------------------	-----------

<sup>1</sup> Pluralean salbuespenak daude. Adibidez, -ья-z bukatzen diren pluralek, genitiboa -ей (друзей) ala -ев (братьев) egin dezakete.

	Genitibo plurala	
Maskulino singularra	kontsonantea ⇒ konts. + ов й ⇒ ев ь ⇒ ей	актёр ⇒ актёр <b>ов</b> герой ⇒ геро <b>ев</b> царь ⇒ цар <b>ей</b>
Femenino singularra	а ⇒ - я ⇒ ь ия ⇒ ий ь ⇒ ей	актриса ⇒ актрис_ няня ⇒ нян <b>ь</b> Мария ⇒ Мари <b>й</b> мышь ⇒ мыш <b>ей</b>
Neutro singularra	о ⇒ - е ⇒ ей ие ⇒ ий	лицо ⇒ лиц_ море ⇒ мор <b>ей</b> здание ⇒ здани <b>й</b>

2. Taula. Izen pluralen eraketa genitiboan.

Azken taula honetan, adjektiboaren eraketa erakutsiko da. Kasu honetan, laugarrengo zutabe bat gehitu da, pluralarena, ez baitira izenekin bezala bi taula egin.

Adjektiboaren generoa	Nom <sup>2</sup> . ⇒ Gen.	Adibideak
-----------------------	---------------------------	-----------

<sup>2</sup> Nom. = Nominatiboa

Maskulino singularra	ый ⇒ ого ой ⇒ ого ий ⇒ его	новый ⇒ нового большой ⇒ большого хороший ⇒ хорошего
Femenino singularra	ая ⇒ ой яя ⇒ ей	новая ⇒ новой синяя ⇒ синей
Neutro singularra	ое ⇒ ого ее ⇒ его	новое ⇒ нового хорошее ⇒ хорошего
Plurala (maskulinoa, femeninoa eta neutroa)	ые ⇒ их ие ⇒ их	новые ⇒ новых хорошие ⇒ хороших

### 3. Taula. Adjektiboen eraketa genitiboan.

Errusiera atzerritar hizkuntza gisa irakasten hasten garenean, lehenengo azalpen orokorrean akusatiboa eta genitiboaren arteko harremana azaltzen da. Hau da, esaldi batean, objektu zuzena akusatiboan jartzen da, baina objektu zuzen hori bizidun bat bada, hots animatua (pertsona bat, esaterako), genitiboaren kasua erabiltzen da. Kasu hau kontsonantez bukatzen diren maskulino singularrean eta genero guztietako pluralean gertatzen da (femenino singularrean ez da gertatzen). Adibidez, *я видел твоего отца вчера* (Atzo zure aita ikusi nuen) esaldian ikus daitekeen bezala, “zure aita” “genitiboan” (genitibo-akusatiboa) dago. Aldiz, *вчера я читала журнал* (Atzo egunkari bat irakurri nuen) esaten badugu, “nominatiboan” (nominatibo-akusatiboa) jarriko dugu, objektu zuzena ez baita bizidun bat. Nahiz eta genitiboa erabili kasu espezifikorietan, azken finean akusatiboaz ari gara, akusatibo berezia baina akusatiboa. Fenomeno morfologiko baten ondorioa da, eta, beraz, lan honetan ez da atal hori genitibo gisa aztertuko.



Errusieran, kasu mota desberdinak irakastean, arazo gehien sortzen dituen genitiboa izan ohi da, bai deklinatzerako orduan sortzen dituen arazoengatik (pluralean batez ere, irregular asko baitaude), baita hark dituen erabilera desberdinengatik ere. Aurrerago genitiboaren erabilera preposiziorik gabe aztertuko da, eta horrek dituen zailtasunak edota arazoak azalduko dira.

## 2. GENITIBOAREN ERABILERA

### 2.1. GENITIBOAREN ERABILERA SUBSTANTIBOEKIN

Substantiboen zenbait kasutan, genitiboaren erabilera beharrezkoa da. Ongi ulertzeko, atal hau hiru zatitan banatuko da, bakoitzean ulertzeko beharrezkoa den azalpena erantsiz.

#### 2.1.1. *Edukitzailera eta zati-osotasuna*

Genitiboa objektuaren edukitzailera izendatzeko erabiltzen da eta galdera hauei erantzuten die: *Чей? Чья? Чьё? Чьи?* Norena? Norenak?

Adibidez: *Чья это книга? -Это книга моей сестры.* Norena da liburua? -Nire ahizparena da.

Esaldi batean, osotasun bateko zati bati erreferentzia egin nahi baldin badiogu, elementu hori genitiboan jarriko dugu, ez baitio erreferentzia osotasunari berari egiten, haren zati espezifikoki bati baizik, jarraian ikusiko dugun bezala:

*Ветка дерева.* Zuhaitzaren adarra.

#### 2.1.2. *Agentea*

Esaldi baten ekintza betetzen duen pertsonak edo ekintzaren eragileak (edo izenak berak dioen bezala, agenteak) genitiboaren kasu marka hartzen du, adibideetan ikus daitezkeen bezala:

*Объяснение преподавателя.* Irakaslearen azalpena.

*Мы слушали песню артиста.* Artistaren kanta entzun genuen.

#### 2.1.3. *Tema*

Esaldi batean eragindako pertsona edo gauza adierazteko, hots, esaldi bateko tema edo objektua adierazteko, genitiboa erabiltzen da (Pulkina, 2000: 46):

*Завоевание Польши.* Poloniaren konkista; Polonia da konkistatzen dena.

*Глоток воды.* Ur zurrutada; ura da irensten duguna.

## 2.2. GENITIBOAREN ERABILERA ADJEKTIBOekin

### 2.2.1. Genitiboa beti eskatzen duten adjektiboak

Adjektibo gutxi batzuek, modu luze zein laburrean, kasu genitiboan dauden izenak hartzen dituzte (Levine, 2009: 48):

*полный* “-(e)z beteta egon”, *достойный* “zerbait merezi duena”, *лишённый* “zerbaiten gabezia izan”.

Adibidez: *Там был кувшин, полный воды.* Urez betetako pitxer bat zegoen.

*Она написала роман, достойный премии.* Idatzi zuen nobelak sari bat merezi zuen.

*Он прожил жизнь, полную борьбы.* Gatazkaz betetako bizitza izan du.

### 2.2.2. Konparazio-mailako genitiboa

Substantiboa kasu genitiboarekin deklinatuta jartzen da konparazio-mailan adjektiboarekin batera erabiltzen denean (Pulkina, 2000: 47). Kasu horri konparaziozko genitiboa edo genitibo alderatzailea deitzen zaio. Kontuan izan behar da kasu genitiboa adjektibo konparatiboak berak forma laburra edo sintetikoa duenean soilik erabil daitekeela. Forma luzea edo analitikoa badu, hots, *более симпатичный* “atseginago”, orduan genitiboa ezin izango da erabili, eta *чем* juntagailua erabili beharko da, atzetik substantibo nominatibo bat duelarik; *Петя более симпатичный, чем Паша* “Petia Paxa baino ederragoa da (eta ez Паши).

Adibidez: *Брат старше сестры / Брат старше, чем сестра.* Anaia arreba baino zaharragoa da.

## 2.3. GENITIBOAREN ERABILERA KUANTIFIKATZAILEekin

### 2.3.1. Zenbatzaileekin

Errusieran zenbaki kardinalak nahiko konplexuak dira. Halere, “bat” zenbatzailea ez dut kontutan hartuko, izenarekin komunztadura duelako beti.

Levinek (2009: 181) aditzera ematen duen bezala, *два/две, три* eta *четыре* zenbakien ostean (baita zenbaki hauetan amaitzen diren konposatuak ere, hots, 22, 33, etab.) dagoen substantiboa genitibo singularrean joango da, zenbakia bera nominatibo kasuan

zein akusatibo bizigabearen dagoenean; sintagma osoa subjektu edo objektu bizigabearen posizioan dagoenean.

*У меня два брата и две сестры.* Bi anai eta bi ahizpa ditut.

*Два/две, три* eta *четыре* zenbakiek substantibo animatu bat modifikatzen badute, eta substantibo hori akusatibo animatuaren kasuan baldin badago, akusatibo kasua duten zenbaki eta substantiboak genitiboaren kasua hartuko dute. Akusatibo animatuarekin substantiboak zenbatzailearekin komunztadura du (beste kasuekin ere, hots, datiboa, instrumentala eta prepositiboarekin berdina gertatzen da), eta gainera, substantibo hori pluralera aldatuko da:

*Мы видели двух мальчиков и трёх девочек.* Bi mutil eta hiru neska ikusi genituen.

Datiboaren kasuan: *Они подошли к трём девушкам.* Hiru neskengana hurbildu ziren.

Aldiz, *два/две, три* eta *четыре* zenbakietan amaitzen diren beste zenbaki konposatuetan, orain ikusi dugun “akusatibo bizidunen” erregela ez da aplikatzen: zenbakiak akusatiboaren marka du, zeina nominatiboaren bera den, eta zenbakiaren atzetik doan substantibo biziduna genitibo singularrean joango da:

*На день рождения мы пригласили двадцать два малыша.* Hogeita bi ume gonbidatu genituen urtebetetze festara.

Azkenik, 5,6,7,8,9 eta 0 zenbakiak ditugu. Zenbaki hauen ostean dagoen substantiboa genitiboan jarriko da, baina kasu honetan, 2,3 eta 4 zenbakietan ez bezala, genitiboa pluralean joango da. Erabilera hau nominatibo eta akusatibo bizigabeekin gertatzen da. Lehen aipatutako “akusatibo animatuen erregela”, aldiz, kasu honetan ez da aplikatzen:

Adibidez: *Я увидела пять мальчиков.* Bost mutil ikusi nituen.

25 mahai: *Двадцать пять столов* (genitibo plurala).

Beste kasuekin, berriz, komunztadura behar da. Esaterako, *мы подошли к пяти домам* (bost etxeetara joan ginen) datiboan dago, eta komunztadura duela ikus dezakegu.

Datei dagokionez, *когда (какого числа)?* (noiz, zein egunetan?) galderari erantzutean, zerbait gertatu dela adierazteko zenbaki ordinal genitiboarekin adierazten da:

*Когда ты родился? Третьего марта 1980 года. Noiz jaio zinen? 1980ko martxoaren 3an.*

### **2.3.2. Bestelako kuantifikatzaileekin**

Kantitate zehaztugabea adierazten duten zenbait hitzen ostean genitiboa erabili behar da. Halere, kontuan izan behar da, zenbatzaile normalekin bezala, nominatibo eta akusatibo bizigabeekin bakarrik hartzen dutela genitiboa. Akusatibo bizidunen erregela, berriro ere, hemen ez da kontuan hartu behar, hots, *я знаю много детей* (ume asko ezagutzen ditut). Beste kasuekin komunztadura behar da (*мы были во многих городах* “hiri askotan egon gara”, *у скольких гостей вы побывали?* “zenbat gonbidatuen etxeetan egon zara?”). Jarraian aurkeztutako kuantifikatzaileen ostean genitiboa beti erabili beharko da:

*Много* “asko”, *мало* “gutxi”, *немного* “ez asko”, *сколько* “zenbat”, *несколько* “gutxi batzuk”, *столько* “batzuk”.

*Adibidez: Сколько хороших фильмов вы смотрите? Zenbat film on ikusten dituzu?*

Ontziak eta bolumen neurriak adierazten duten zenbait hitzen ostean ere genitiboaren kasua erabiltzen da. Gainera, kantitate zehaztugabeekin ez bezala, hauek beti joango dira genitiboan:

*Бутылка* “botila”, *килограмм* “kilogramo”, *литр* “litro”, *чашка* “taza, katilu”, *стакан* “baso bat”.

*Adibidez: Если разогреть литр льда, он станет литром воды. Izotz litro bat urtzen bada, ur litro bat lortuko da.*

*На столе стоит бутылка вина. Mahaiaren gainean ardo botila bat dago.*

Pulkinak aditzera ematen duen bezala (2000: 49), kontuan izan behar dira plurala ez duten hitzak, *много* bezalako hitzen atzetik singularrean geratuko direlako beti, hala nola: *мало времени* (denbora gutxi).

### 2.3.3. Erabilera partitiboa

Kasu genitiboa aditz iragankor batzuen objektuak zentzu "partitibo" bat adierazteko erabil daiteke, hau da, osotasunaren zati bat adierazteko (Levine, 2009: 47). Hain zuzen ere, osotasun baten zati bat adierazten denean, genitiboa erabiltzen da, eta objektu jakin bat izendatzen duenean, aldiz, akusatiboa erabiltzen da:

Adibidez: *Дай, пожалуйста, хлеба.* Mesedez, eman ogi pixka bat.

Objektu bera akusatiboan egongo balitz, "guztia" esan nahiko luke, eta ez "zati bat". Hau da, *дай, пожалуйста, хлеб* esango balitz, "mesedez, eman ogia" izango litzateke esaldiaren esanahia, ogia bere osotasunean adieraziz.

Beste esanahi posible bat objektu zehaztugabearena da. Jarraian ikus dezakegun bezala, akusatibo pluralean jartzean liburu edota poxpolo hitza (*спички, книги*), esan nahi dena da poxpolo edo liburu jakin batzuk eskatzen dituela. Aldiz, genitiboan jartzen baditugu (*спичек, книг*), edozein poxpolo edo liburuz ari gara; objektu zehaztugabeaz ari gara.

Acusativo	Genitivo
Он <i>попросил</i> тетрадь.	Он <i>попросил</i> бума́ги.
El ha pedido un cuaderno.	El ha pedido papel.
Он <i>просит</i> спичку.	Он <i>просит</i> спичек.
El pide una cerilla.	El pide que le den cerillas.
Она <i>потребовала</i> своё́ книгу.	Она <i>потребовала</i> книг.
Ella ha pedido su libro.	Ella ha pedido que le den libros.

1. Irudia. *El ruso. Gramática práctica.* (Pulkina, 2000: 53)

Zenbait hitzek amaiera berezia dute kantitatea adierazteko, eta hori izen jakin zehatz batzuekin bakarrik erabiltzen da. Substantzia edo material baten kantitate edo zati bat adierazten denean, substantibo maskulino batzuek *-y(-ю)* amaiera hartzen dute, hau da, bigarren genitiboa edo genitibo-partitiboa<sup>3</sup>, zeina hitz gutxi batzuek duten bigarren alomorfoa den (Pulkina, 2000: 37):

*Кусок сахара* "azukre puska bat", *стакан чаю* "baso bat te", *килограмм мёду* "ezti kilo bat", *купить сахару, мёду* "azukrea, ezti erosi", *выпить чаю* "tea hartu".

<sup>3</sup> Amaiera hau errusieraren historian desagertu zen eta *-y-z* bukatzen zen deklinabide zahar bateko genitiboa adierazten zuen.

Zati edo kantitate abstraktu bat denez (ez da zehatza), hori adierazteko genitiboa erabiltzen da. Hitz gutxi hauen kasuan, genitibo maskulinoak amaiera desberdina duela ikusten da, kasu normaletan genitiboak *-я/-а* amaiera baitu.

Adibidez: *кусок сахара* "azukre puska bat" eta *качество сахара* "azukrearen kalitatea"

Ikusten den bezala, kasu orokor batean partitiboa erabiliko genuke, *-а* amaiera erantsiz. Aldiz, lehenengo kasuan elementuaren zati edo puska bat adierazi nahi denez, eta ez bere osotasuna, *-у* amaiera berezia eranstean zaio.

Kontuan hartu behar da kasu batzuetan, *-у* amaiera duten substantibo maskulinoak preposizioei loturik doazela, adibidez: *вышел из дому* (Etxetik irten zen).

#### **2.3.4. Kantitatea adierazten duten aditzekin**

Errusiar aditz batzuek objektu kopuru zehaztugabe bati eragiten dioten ekintzak adierazten dituzte, eta aditz horien ostean beti genitiboa erabiliko dugu. Zenbait aditz iragankorrez osatuta dago, eta *на-* aurrizkia dute. Esan daiteke *на-* aurrizkia dela kuantifikadorea, kantitatearen semantika daramana.

Kontuan izan behar da aditz horiek aspektu burutuan daudela, haien parekide diren aditz aspektu burutugabeek akusatiboaren marka eskatzen baitute. Hain zuzen ere, burutugabeekin ezin da *на-* aurrizkia erabili, aurrizkiak beti burutuarekin egiten baitira. Beraz, erabilera kuantifikatzailea aditz burutuarekin bakarrik erabil daiteke.

Adibidez: *Мальчик нарвал цветов*. Mutilak lore batzuk hartu zituen.

#### **2.4. GENITIBOAREN ERABILERA EZEZTAPENAREKIN**

Baieztapeneko esaldi batean, aditz iragankorraren objektu zuzena akusatiboan egongo da. Aldiz, aditz iragankorrek ezeztapena baldin badu, objektu zuzena akusatiboan zein genitiboan jarri daiteke. Nahiz eta ezeztapeneko aditz iragankorretan bai kasu akusatiboa bai genitiboa biak zuzenak izan, objektuaren esanahia aldatu egiten da erabiltzen dugun kasuaren arabera. Jarraian aurkeztuko diren kasuetan genitiboa erabili ohi da (Levine, 2009: 47). Gainera, subjektu existentzialekin ere antzeko zerbait gertatzen da: perpaus existentzial batean ezeztapena sartzerakoan, baiezko perpausetan nominatiboa izan ohi den subjektua genitibora pasatzen da.

#### **2.4.1. Ezeztapena perpaus existentzial-posesiboetan**

Esaldi existentzialak *есть, нет (был, была, было, не было, будет, не будет)* aditzekin osatutakoak dira, non aditz hauek “izan, egon” esanahia duten. Esaldi horiek baiezkoak edo ezezkoak izan daitezke. Baiezko esaldien kasuan, subjektua nominatiboan joango da, eta aditzarekin komunztadura izango du:

*Здесь были книги.* Hemen liburuak zeuden.

Aldiz, ezezko esaldia baldin bada, subjektua genitiboan jarriko da eta aditzarekin duen komunztadura galduko du:

*Здесь не было книг.* Hemen ez zegoen libururik.

*Здесь хорошие люди. / Здесь нет хороших людей.* Hemen jende ona dago / Hemen ez dago jende onik.

Hain zuzen ere, *нет, не было, не будет (ez dago, ez zegoen, ez dira egongo)* inbertsonalak dira (ez dute subjekturik), eta, beraz, objektuaren gabezia adierazten dute. Ondorioz, objektua genitiboan joango da:

*У меня не было билета.* Ez nuen sarrerarik.

Posesiboak existentzialen azpitalde bat dira, *иметь* “eduki” aditza ez delako normalean erabiltzen (esanahi oso murriztua du) eta existentzialetan oinarritutako egitura hartzen baita posesioa adierazteko. Posesibozko esaldiak baiezkoak zein ezezkoak izan daitezke. Baiezkoen kasuan, esaldi existentzialetan bezala, subjektua nominatiboan joango da, eta aditzarekin komunztadura izango du (*у меня была книга* “liburu bat nuen”). Ezezko esaldietan, aldiz, subjektua genitiboan jarriko da eta esaldi existentzialetan ikusi den bezala, aditzarekiko komunztadura galduko du:

*У меня были книги. / У меня не было книг.* Liburuak nituen. / Ez nuen libururik.

*У меня был брат. / У меня не было брата.* Anai bat nuen. / Ez nuen anaiarik.



Hala ere, badira salbuespenak. Subjektua oso indibidualizatua baldin badago, genitiboa beharrean nominatiboa erabiliko da, nahiz eta ezeztapen existentzial bat izan:

*Саша здесь нет. Saxa ez dago hemen.*

Adibidean ikusten den bezala, izen propioa nominatiboan dago, eta ez genitiboan. Berdina gertatzen da beste izen propioekin.

Subjektua genitiboan dagoenez, aditzarekiko komunztadura galdu egiten da, eta, beraz, aditza beti forma neutroan erabiltzen da: 3. pertsona singularra eta neutroa, hau da, *не было, не будет*. Horrela, lehen aipatutako adibideko egitura ikusten da: *не было, не будет* + genitiboa.

*У меня не было книг. Ez nuen libururik.*

Beraz, *нет, не было, не будет* (ez dago, ez zegoen, ez dira egongo) adierazten duten ezeztapeneko aditz horien ostean genitiboa erabiliko da. Halere, badira beste zenbait kasu non gabezia hori adierazten den, hala nola, *не существует* (ez da existitzen) bezalako ezeztapenetan. Horrelako kasuetan ere genitiboa erabili behar da (Pulkina, 2000: 51).

Adibidez: *Браслета, который ты мне оставил, не существует. Utzi zenidan pultsera ez da existitzen.*

Ez da *быть* “izan” aditzarekin soilik gertatzen, badira beste zenbait aditz sarri termino existentzialista gisa ulertzen direnak, eta ukatzen direnean, genitiboa erabil dezakete, hala nola, *чувствоваться* “sentitu”, *видеться* “ikusia izan”, *иметься* “existitu”, *остаться* “jarraitu, egon”.

*Людей там совсем не оказалось. Han ez zegoen batere jenderik.*

*Она искала, не осталось ли ягод. Baiarik geratzen ez ote zen egiaztatu zuen.*

Genitiboa libreago erabil daiteke existentzia informatzen duten aditzekin, non existentzia predikatuaren indar komunikatiboa den. Ez da hain gertagarria jarduera modua deskribatzen duten aditzekin, moduari erreparatzeak gizabanakoaren existentzia

eta identitatea aurreuposatzen baitu (Timberlake, 2004: 305). Existentzia ez den beste zerbait ezeztatzen denean, lokazioa, adibidez, nominatiboa erabiltzen da:

*Нас нет дома* (genitiboa erabiltzean esaten dena da gu ez gaudela etxean).

Aldiz, *мы не дома, а в театре* (nominatiboan esaten dena da ez gaudela etxean, antzerkian baizik, hau da, ez gaudela leku batean, beste batean baizik).

Esaterako, *никого* “inor” *ничего* “ezer” genitiboek klase ireki bateko edozein kideren erabateko absentziaren berri ematen dutenez, genitiboa erabiltzeko joera dute:

*Все наши расстреляны, никого не осталось в живых.* Jende guztiari egin zioten tiro, inor ez zen bizirik geratu.

#### 2.4.2. Ezeztapena objektuekin

Aditz iragankorrak ezeztapenean baldin badaude, objektua genitiboan joan daiteke, jarraian dagoen irudiak erakusten duen bezala:

<b>Я не п<sup>о</sup>нял вопро́са.</b>	<b>No he comprendido la pregunta.</b>
<b>Мы не получи́ли твоего́ письма́.</b>	<b>No hemos recibido tu carta.</b>
<b>Он ещё не ви́дел но́вого фи́льма.</b>	<b>Aún no ha visto la nueva pelí- cula.</b>

2. Irudia. *El ruso. Gramática práctica* (I.Pulkina, E. Zakhava-Nekrásova, 2000: 51)

Aldiz, irudian ikusi daitezkeen esaldiak baieztapeneko esaldiak izango balira, akusatiboan joango lirateke:

<b>Я п<sup>о</sup>нял вопро́с.</b>	<b>He comprendido la pregunta.</b>
<b>Мы получи́ли твоё письмо́.</b>	<b>Hemos recibido tu carta.</b>
<b>Он ви́дел но́вый фильм.</b>	<b>Ha visto la nueva película.</b>

3. Irudia. *El ruso. Gramática práctica* (I.Pulkina, E. Zakhava-Nekrásova, 2000: 51)

Glazunova-k (2007: 41) azaltzen duen bezala, zenbait kasutan, nahiz eta ezeztapeneko perpausak izan, akusatiboa erabili behar da. Beraz, argi izan behar da zein kasutan erabili behar den akusatiboa eta zeinetan genitiboa.

Hasteko, ezeztapen partzialetan akusatiboa erabiliko da: *он не читает, а просматривает газеты* (egunkaria ez du irakurtzen, begiratu egiten du). Gainera, predikatu konplexuetan ere, akusatiboa erabiltzen da: *он не успел найти решение* (ezin izan zuen erantzuna aurkitu), *он не считал это занятие полезным* (ez zitzaion baliagarria iruditu). Zenbait esaeretan ere, akusatibo marka aurki dezakegu, nahiz eta lehen aipatu bezala, ezeztapeneko perpausa izan: *не морочь мне голову* (ez nazazu engainatu) *не заговаривай мне зубы* (ez zaitez inozoarena egin).

Halere, akusatiboa orokorrean kasu hauetan erabiltzen da (ezeztapena egonda ere): gauza zehatz bat adierazten duten substantiboetan, hots, *я не купил книгу (о которой ты мне говорил)* (ez nuen zuk aipatu zenidan liburua erosi), *не потеряй билет на поезд* (ez ezazu treneko tiketa galdu). Gainera, objektu animatuekin eta izen propioekin ere, akusatiboa erabiliko da: *Я не видел тётю три года* (badira hiru urte izeba ikusten ez dudala), *он не любит Москву* (ez zaio Mosku gustatzen). *Некому* (inor), *негде* (inon), *не к чему* (ez dago zer) hitzekin ere, akusatiboa erabiliko dugu: *негде опубликовать работу* (inon ezin da lana argitaratu). Azkenik, *едва не* eta *чуть не* (ia) ezeztapen partikulekin ere akusatiboa erabili behar da:

*Чуть не разбил тарелку.* Platera hausteko zorian egon zen.

Aldiz, genitiboa ere kasu jakin batzuetan erabili beharra dago. Hasteko, esaera batzuek genitiboa behar dute: *не играть роли* (ez izan inolako garrantzirik), *не обращать внимания* (ez egin kasurik), *не находить себе места* (ez aurkitu norberaren lekua). *Не имеет* aditzaren ostean ere, genitiboa erabiliko da: *не имеет значения, денег, машины* (ez du garrantzirik, dirurik, kotxerik).

Genitiboa orokorrean substantibo abstraktuekin erabiltzen da, hots, *не уронить достоинства* (ez utzi dignitatea erortzen). Azkenik, zentzuen pertzepzioa edota pertzeptzio mentala adierazten duten aditzekin ere genitiboa erabiliko da, hala nola, *не видеть* “ez ikusi”, *не слышать* “ez entzun”, *не чувствовать* “ez sentitu”, *не понимать* “ez ulertu”, *не знать* “ez jakin”... adibidean ikus daitekeen bezala:

*Не помнить адреса.* Helbidea ez gogoratu.

*Я не чувствовал боли.* Ez nuen minik sentitzen.

Azkenik, hizkuntza estiloak ere badu bere garrantzia. Gaur egungo errusiarren estiloari begiraturaz gero, ezeztapenekin zein objektuekin joera desberdinak ikusiko ditugu: kaleko hizkeran edota eguneroko estiloan, akusatiboa gehiago erabiltzen da, baina estilo jasoago batean hitz egin edota idazterako orduan, genitiboa gehiago erabiltzeko joera dago.

## **2.5. GENITIBOAREN ERABILERA ADITZEKIN**

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, nahiz eta preposiziorik ez izan, zenbait aditzek genitiboa eskatzen dute (Levine, 2009: 95). Aditz horiek bi multzotan banatuta azalduko dira; genitiboa beti eskatzen duten aditzak alde batetik, eta aditz intentsionalak, bestetik.

### ***2.5.1. Genitiboa beti eskatzen duten aditzak***

Aditz batzuek, nahiz eta atzetik preposiziorik ez eraman, genitiboa behar dute jarraian. Berdin da nolakoa den objektua, beti genitiboaren marka erantsiko zaie aditz horien objektuei. Azken horri aditzen gobernua (errekzioa) deritzo. Esaterako, *достигать* eta *добиваться* (lortu, erdietsi) bezalako aditzen atzetik doan izenarekin genitiboa erabiliko da. Jarraian ageri diren aditzak ohikoenak dira (Levine, 2009: 48):

*Бояться* “beldur izan”, *избегать* “saihestu”, *опасаться* “kezkatu”, *добиваться* “lortu, sustatu”, *достигать* “lortu”, *пугаться* “beldurtu”.

Adibidez: *Смерти пугается*. Heriotzak beldurtzen du.

### ***2.5.2. Aditz intentsionalak***

Zenbait aditzek jarraian duten osagarriaren semantikaren arabera, genitiboa edo akusatiboa eskatzen dute. Hau da, objektuaren semantikaren araberkoa izango da jarraian erabiliko den kasua (Pulkina, 2000: 51). Esaterako, substantiboak *просить* (eskatu) edo *требовать* (exijitu) aditzaren osagarri-funtzioa betetzen duenean, substantibo horrek akusatiboa hartuko du zehaztua bada, eta genitiboa, aldiz, abstraktua bada:

*Я требую свои деньги*. Nire dirua exijitzen dut, *Я ищу книгу*. Liburu baten bila ari naiz.

Aldiz, *Я требую мира*. Bakea exijitzen dut, *Я ищу поддержки*. Sostengua bilatzen ari naiz.

Berdina gertatzen da jarraian ageri diren aditzekin; esan nahi denaren arabera, objektuek kasu genitiboaren edo akusatiboaren marka hartuko dute:

*Просить* “erregutu”, *хотеть* “nahi”, *искать* “bilatu”, *ждать* “esperoan egon”, *желать* “desiratu”, *просить* “eskatu”, *требовать* “exijitu”.

Adibidez: *Я прошу мира*. Bakea eskatzen dut, genitibo marka.

*Я прошу книгу*. Liburua eskatzen dut, akusatibo marka.

Halere, esan beharra dago *ждать* “esperoan egon” aditzak azpi-salbuespenak dituela. Izan ere, *письмо* “gutuna”, *поезд* “trena” eta *трамвай* “tranbia” hitzekin genitiboa erabiltzen da, nahiz eta hitz horiek objektu zehatzak adierazi (Pulkina, 2000: 53):

*Я жду письма*. Gutun baten esperoan nago.

## 2.6. RKI IKASLEENTZAKO ZAILTASUNEN LABURPENA

Atal honetan, errusiar ikasleentzako genitiboaren erabilerak preposiziorik gabe dituen zailtasunak aipatuko dira laburpen gisa.

Azalpen teorikoan ikusi dugu oso garrantzitsua dela genitiboaren erabilera (preposiziorik gabe) argi izatea, ezinbestekoa baita errusiera mintzatuan zein idatzian. Gramatikaren puntu honetara iristean ikasleek duten mailaren arabera, hainbat motatako zailtasunak aurki ditzakete:

- 1) Adjektiboekin: adjektiboarekin batera konparazio-mailan genitiboa erabiltzen da. Kontuan izan behar da badirela kasu batzuk non ezin den erabili; forma luzea edo analitikoa dutenean.
- 2) Kuantifikatzaileekin:
  - a) Zenbatzaileekin:
    - i) 2, 3 eta 4 zenbakiekin genitibo singularra erabiltzen da,
    - ii) 22, 23, 32, 33 kasuekin genitibo singularra erabiltzen da,
    - iii) 5tik gorako zenbakiekin genitibo plurala erabiltzen da,

- iv) 2,3 eta 4 zenbakiek eta jarraian doazen substantiboek genitibo pluralaren kasua hartuko dute akusatibo animatuan daudenean. Erregela hau ez da aplikatzen 5tik gorako kasuetan (22,32,43... kasuekin ere ez da aplikatzen),
  - v) *Когда (какого числа)?* galderari zerbait gertatu dela erantzuteko zenbaki ordinal genitiboa erabiltzen da.
- b) Bestelako kuantifikatzaileekin:
- i) Bolumen neurriak adierazten dituzten hitzekin genitiboa erabiltzen da (*стакан...*),
  - ii) Kantitate zehaztugabe bat adierazten duten hitzekin genitiboa erabiltzen da (*много, мало, немного...*).
- c) Erabilera zehaztugabea:
- i) Objektuak zentzu partitibo bat, zati bat, adierazteko genitiboa erabiltzen da,
  - ii) Hitz batzuk amaiera desberdina dute: *-y/-ю*,
- d) Kantitatea adierazten duten aditzekin:
- i) *На-* aurizkia duten aditz burutuekin genitiboa erabiltzen da.
- 3) Ezeztapenekin:
- a) Perpaus existentzialak eta posesiboak: *нет* aditzekin osatutakoak,
  - b) Aditz iragankorrak ezeztapenean egonez gero, objektu zuzena genitiboan jar daiteke,
  - c) Perpaus existentzial eta posesiboetan, subjektuak aditzarekin ohi duen komunztadura galtzen du,
  - d) Salbuespenak: izen propioekin ez da genitiboa erabiltzen, ezta lokazioa ezeztatzen denean (existentzia bera beharrea) ere,
  - e) Existentzia adierazten duten beste aditz batzuekin ere genitiboa erabiltzen da.
- 4) Aditzekin:
- a) Aditz intentsionalekin: adierazi nahi den elementuaren arabera genitiboa (hitz abstraktuekin) edo akusatiboa (hitz zehatzekin) erabiltzen da.
  - b) Errekzio berezia duten aditzekin genitiboa erabiltzen da.

### 3. MATERIAL DIDAKTIKOAREN ANALISI PRAKTIKOA


Orain arte ikusi dugun bezala, genitiboaren erabilera preposiziorik gabe fenomeno konplexua da, eta arreta berezia eskatzen du RKIren irakaskuntza prozesuan zehar. Horregatik, orain ikasgeletan gehien erabiltzen diren materialetako batzuk aztertuko dira (eskuliburu orokorrak eta espezifikokoak, baita ariketa liburuak eta gramatika praktikoak ere), irakasleak bere irakaskuntza osorik garatu ahal izateko ikasgeletan ematen diren azalpenak nahikoak diren ebaluatzeko, edo, aitzitik, material osagarriren bat beharko duen eta zer estali beharko duen kontuan hartzeko.

#### 3.1. ESKULIBURU OROKORRAK

##### 3.1.1. *Поехали!*

Aztertuko dudan hurrengo eskuliburua *Поехали!* da. Liburu honek bi atal ditu: *Поехали!* 1 (A1) eta *Поехали!* 2 (A2), azken hau bi zatitan banatuta.


Lehenengo liburuan, liburu amaierara arte ez dago ia genitiboaren azalpenik (21. gaira arte ez da genitiboaren azalpenik ageri). Liburu hau A1 maila duten ikasleentzat denez, hau da, hasiberriak direnentzat denez, azalpen orokorrak besterik ez dira ageri. Ondorioz, azalpen oso bat emateko behar diren azalpenak ez ditugu aurkituko, maila baxuegia delako.



4. Irudia. *Поехали!* (Тхерныхов, 2009: 169).


Irudian ikus daitekeen bezala, 169. orrialdean ezeztapen existentzial-posesiboen taula bat dago, baina ez dago azalpenik, baiezko esaldietan subjektua nominatiboan dagoela eta ezezkoetan genitiboan jartzen dela besterik ez da ikusten. Beraz, ikasleak ezingo du ongi ulertu kasu horiez gain noiz erabili behar den genitiboa. Gainera, ezeztapenetan aditzak komunztadurarik ez duela ikusten da, baina ikasleak ez du ulertuko bertan ageri

den taularekin bakarrik zergatik gertatzen den hori. Halere, egitura landu nahi bada, proposatzen den ariketa egin daiteke:



5. Irudia. *Поехали!* (Тхерныхов, 2009: 169).

Zenbatzaileei dagokionez, 172. orrialdean 2,3 eta 4 zenbakien ostean genitiboa jartzen dela besterik ez da adierazten. Ez du esaten 5. zenbakitik aurrera genitibo plurala erabili behar denik, ezta 32,23... zenbakiekin zer gertatzen den ere. Beraz, ikaslearentzat nahasgarria dela iruditzen zait, informazio oso zehatza ez izateaz gain, erdizka baitago:



6. Irudia. *Поехали!* (Тхерныхов, 2009: 172).

5 zenbakitik aurrera genitibo plurala erabili behar dela hurrengo gaian azaltzen du (184. orrialdean), baina kuantifikatzaile zehaztugabeekin batera sartzen ditu. Ez du azalpenik ematen eta zenbatzaile zehaztugabe gutxi aipatzen ditu (ohikoenak). Hitz eta zenbaki horien ostean genitibo plurala bakarrik erabili behar dela aipatzen du. Hau da, aurreko gaian 2,3 eta 4 zenbakiekin genitiboa jarri behar dela soilik esaten du, eta oraingoan, zenbatzaile zehaztugabeak eta 5tik aurrerako zenbakiak genitibo pluralean behar duela azaltzen du:



Скóлько, мнóго, мáло, нéсколько, 5, 6, 7, 8 ... + GEN. PL.

7. Irudia. *Поехали!* (Тхернухов, 2009: 184).

Kuantifikatzaileen atala sakabanatuta eta azalpen handirik gabe azaltzen du. Pentsa dezakegu banatuta ematen duela lehenengo gaian genitibo singularra bakarrik azaltzen duelako, eta bigarrengean, aldiz, plurala. Halere, RKI ikasle bati oso nahasgarria gerta dakiok.

185. orrialdean, zenbatzaileen laburpen bat ikus daiteke:

ВРЕ́МЯ		
1	2, 3,4	5, 6, 7, 8...
f. (одна)	f. (две)	
секунда	секунды	секунд
минута	минуты	минут
неделя	недели	недель
м. (один)	м. (два)	
час	часá	часов
день	дня	дней
месяц	месяца	месяцев
год	го́да	лет
век	ве́ка	веко́в

8. Irudia. *Поехали!* (Тхернухов, 2009: 185)


Oso nahasgarri dagoela iruditzen zait; dena zatika azaltzen du eta liburuan dagoen ordena jarraituta azaldu nahi bada oso zaila da. Gainera, 22,32,33 zenbakiekin gertatzen dena ez du azaltzen. Azalpena laburregia izateaz gain, aspektu bakoitza bere aldetik lantzeko ariketa bana gutxiegi da, eta ariketa horiek, gainera, errepikakorrek dira. Zenbakitzaileen arteko desberdintasunak ikusteko, denak nahastuta agertzea ezinbestekoa dela deritzot. Eskuliburu honek jarraian ageri den ariketa soilik eskaintzen du, eta ez dela nahikoa iruditzen zait:

**Задание 237**

	франк	рубль	крона	марка	доллар
1	франк				
4	франка				
12	франков				
23	франка				
48	франков				
681	франк				
1322	франка				
4878	франков				

9. Irudia. *Поехали!* (Тхернухов, 2009: 184).

Frankoa eta markoa adibide bezala erabiltzea ez dela egokia deritzot, ordurako euroa jada sartuta baitzegoen sisteman (euroa 2002. urtean sartu zen, eta liburu hau 2009. urtekoa da). Gainera, gaur egungo ikasleei frankoa eta markoa arrotzak gerta dakizkiekeela uste dut.

 **Задание 241**

1) Длина Невы 74 (километр). 2) Её глубина 8 (метр), а ширина 600 (метр). 3) В Петербурге 86 (река и канал). 4) В городе 42 (остров) и 300 (мост). 5) В Петербурге 2500 больших и маленьких (библиотека). 6) В городе 5 (миллион) (житель). 7) В Петербурге 143 (стадион), 350 (футбольное поле), 111 (теннисный корт). 8) В Эрмитаже 15 000 (картина) и 12 000 (скульптура). 9) В городе примерно 1800 (улица) и (проспект), 835 (парк) и (сад).

10. Irudia. *Поехали!* (Тхернухов, 2009: 186).

Bigarren eskuliburuko lehen atalean (A2 maila), ez dago kasuen azalpen askorik, liburuaren zati handi bat aditz burutu eta burutugabeak azaltzean datza eta. Halere, 87. orrialdean, zenbakiak aipatzen ditu berriro, eta aurreko eskuliburuan bezala, ariketa bat proposatzen du; nahiko sinplea. Gainera, ariketak barregura sortu nahi duela suposatzen da, baina ez dut uste efektu hori lortzen duenik:

1, 21, 381...	+ Nom. sing.	
2, 3, 4, 33, 664...	+ Gen. sing.	
5, 6, 7...	+ Gen. pl.	
1 час	1 минута	1 рубль
3 часа	3 минуты	3 рубля
5 часов	5 минут	5 рублей



### Задание 5

- Сколько (костюм) можно купить за 5000 (доллар)? А за сколько можно купить 5000 (костюм)?
- Я потратил 30 000 (рубль) на коллекцию (диск). Сколько (час) мне нужно, чтобы их послушать?
- В нашем магазине 126 (модель) (блузка). Сколько (девушка) нужно, чтобы их купить?
- У меня в шкафу 19 (белая рубашка) и 37 (дорогой галстук). Сколько ещё мне нужно?
- 6 (спортивная машина) могут проехать 100 (километр) за 20 (минута). А 12 (спортивная машина)?
- 10 (импульсивный покупатель) за 10 (час) могут купить 500 (ненужная вещь). А сколько могут купить 20?
- 15 (агент) продают 60 (элитная квартира) за год. Сколько они могут продать за три (год)?
- 5 (новый русский) потратили 10 (миллион) за месяц. Сколько (обычные люди) нужно, чтобы потратить эти деньги?
- У марсианина 18 (рука) и 12 (нога). Сколько (пара ботинок) ему нужно? А сколько (друзья) могут взять его за руки?
- Вы ответили на 9 (странный вопрос). А сколько (странный вопрос) вы можете придумать?

11. Irudia. *Поехали!* (Тхернухов, 2009: 87).

Gainontzeko kasuetan bezala, azalpen labur bat dakarkigu ariketaren aurretik eta nahiko garbi ulertzen bada ere, irakasleak osatu beharko lukeela deritzot. Horrez gain, kasu honetan ere, ariketa bakarrarekin ez da nahikoa.

Ezeztapenari dagokionez, eskuliburu honek honako azalpen hau eskaintzen du:

### Задание 4

У террористов много пистолетов, автоматов, гранат и нет документов.

1. У кого много денег?	У кого нет денег?
2. У кого много времени?	У кого нет времени?
3. У кого много идей?	У кого нет идей?
4. У кого много машин?	У кого нет машины?
5. У кого много книг?	У кого нет книг?
6. У кого много работы?	У кого нет работы?
7. У кого много проблем?	У кого нет проблем?

12. Irudia. *Поехали!* (Тхернухов, 2009: 87).

Ariketa hori baino lehen ez dago inongo azalpenik, genitibo pluralaren eraketa besterik ez. Gainera, ikasle batentzat zenbakitzaileekin genitiboa jartzen dela ulertzeko zaila iruditzen zait, *много* hitza agertzen baita, eta, beraz, ikasleak automatikoki jarriko luke

substantiboa genitiboan, ongi ulertu gabe. Berdina gertatzen da ezezko kasuan, *нет* agertzen denez, RKI ikasleak automatikoki erantzungo luke, benetan esanahia ulertu gabe. Eskuliburu honen bigarren atalean ez dago genitiboaren (preposiziorik gabe) inongo azalpenik.

*Поехали!* eskuliburua aztertu ondoren, esan daiteke ez zaiola arreta handirik jartzen genitiboaren (preposiziorik gabe) erabilerak dituen zailtasunak azaltzeari. Azalpen oso orokorrak dira, eta irakasleak informazio gehigarria eman beharko luke azalpenak osatzeko, bere horretan utziz gero zailtasunak ulertzeko ez baita nahikoa. Gainera, aukeratutako ariketek ildo berari jarraitzen diotela ikus dezakegu, eta, beraz, ez dute ikasten laguntzen. Ondorioz, eskuliburu honek eskaintzen duen materiala nahiko eskasa eta sistematizazio gutxikoa dela deritzot.

### **3.1.2. Русский язык: 5 элементов**

Jarraian aztertuko den eskuliburua *Русский язык: 5 элементов* da. Eskuliburu honek 3 atal ditu, A1 mailatik hasi eta B1 mailara arte. *Поехали!* eskuliburuaren egoera nahiko antzekoa aurkitzen dugu, genitiboaren erabilerarekin lotutako materiala oso zatituta baitago liburuki desberdinetan zehar (A1, A2, B1). Halere, azpimarratu behar da azalpen zehatzagoak ematen dituela mailak gora egin ahala.


Lehenengo liburuan (A1 maila) ez dago genitiboaren azalpen handirik, hasiera denez, gauza orokorrak azaltzen baitira. Bigarren liburuan, hots, A2 mailan, 31. orrialdean genitiboa eskatzen duen aditz bat ageri da, *бояться* “beldur izan”, eta horren ostean genitiboa erabili behar dela esaten du, azalpen gehigarririk gabe. Nahiz eta mota honetako aditzetatik gehien erabiltzen dena hau izan, beste aditz batzuk ere badirela aipatuko nuke, adibideren bat jarritz. Jarraian ariketa bat proposatzen du, baina ariketa hori oso nahasgarria dela iruditzen zait, ezeztapena ere bertan nahastuta ageri baita. Gainera, aditza beti bera da, eta, beraz, ikasleak automatikoki erantzungo luke, ondo jakin gabe bereizten aditz horretaz gain badirela beste aditz batzuk genitiboa eskatzen dutenak, baita aditz intentsionalak ere.

д) Смотрите на схему в пункте а) и рассказывайте историю семьи.

**боя|ться (II) + гер.**

бо|юсь      бо|ймся  
 бо|ишься    бо|итесь  
 бо|ится      бо|ятся  
 боя|лся (-лась, -лись)  
 Не бойся / не бойтесь!

Мышь боится котá.



**ЗАДАНИЕ 10. + бояться + кого / чего?**

а) 1. Мы \_\_\_\_\_ (кризис). 2. Банкиры \_\_\_\_\_  
 (инфляция). 3. Ты \_\_\_\_\_ (он). 4. Спортсмены \_\_\_\_\_  
 (травма). 5. Пациент очень \_\_\_\_\_ (операция). 6. Я не  
 \_\_\_\_\_ (работá). 7. Он \_\_\_\_\_ (её ответ). 8. Раньше дети  
 \_\_\_\_\_ (темнотá). 9. Розы \_\_\_\_\_ (мороз).  
 10. Пенсионеры \_\_\_\_\_ (бедность). 11. Девочка \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_ (гром). 12. Ты не \_\_\_\_\_ (безработица)? 13. Ничего  
 не \_\_\_\_\_ !

Уровень А2. Часть V. Урок 21 31

13. Irudia. *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2009: 31).

Hurrengo orrialdean, perpaus posesiboetan zein aditz existentzialetan ezeztapena dagoenean, aditzek komunztadura nola galtzen duten ageri da. Nahiz eta azalpena osorik egon, oso modu nahasgarrian dagoela iruditzen zait; laukitxoak ez dira oso intuitiboak. Beraz, ikasleak irakaslearen azalpen gehigarririk gabe ezingo du ongi ulertu zergatik ez dagoen ezeztapeneko posesiboetan aditzarekiko komunztadurarik; egitura buruz ikasi besterik ezin du egin. Bestalde, jarraian proposatzen den ariketa ezeztapenean dagoenez, baieztapeneko esaldietan ikasleak ez luke jakingo nola erantzun beharko lukeen. Baieztapeneko zein ezeztapeneko perpausak ageri diren ariketa bat aurkeztuko nuke nik, bi perpausen arteko desberdintasuna garbi gelditzeko, ariketak proposatzen duen modua oso nahasgarria dela iruditzen baitzait:

**GENITIVE**

**2. НЕТ – НЕ БЫЛО – НЕ БУДЕТ**

— У вас **есть** дáча и мотоцикл?  
 — Нет. У нас **нет** дáчи и мотоцикла.  
 — Как нет? Я думáл, что есть. А рáньше у вас **были** дáча и мотоцикл?  
 — Нет. Рáньше у нас тóже **не было** дáчи и мотоцикла, и я думáю, что у нас их **не будет**.

вчерá		+	был (-á, -о, -и) есть	≠	не было нет не будет	
сегóдня	кто / что		буду ... будут			кого / чего
зáвтра						

**ЗАДАНИЕ 11. Отвечайте негативно.**

<b>а) Сегóдня. Модель:</b> — У тебя <b>есть</b> машинá? — Нет, у меня <b>нет</b> машины.	<b>б) Вчерá. Модель:</b> — У тебя <b>былá</b> машинá? — У меня <b>не было</b> машины.	<b>в) Зáвтра. Модель:</b> — У тебя <b>будет</b> машинá? — У меня <b>не будет</b> машины.
--	---	--

1) ты, машинá	4) я, шанс	7) он, зарплáта	10) вы, вопрос
2) они, квартирá	5) мы, шампúнь	8) она, врéмя	11) ты, портфéль
3) брат, автомобилé	6) сестрá, проблемá	9) они, дверь	

14. Irudia. *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2009: 32).

Genitiboa eskatzen duten aditzen haria jarraituz, 36. orrialdean *желать* aditza ageri da, eta jarraian hitzak genitiboan daude. Ez du azaltzen aditz intentsional bat denik (edo badirela beste batzuk). Bere esanahiagatik, *желать* ia beti abstraktuekin erabiltzen da, horregatik askotan eskuliburuak genitibo errektzioa duela esaten dute, baina badira adibideak akusatiboarekin: *желать жену соседа* (auzokidearen emaztea desiratu). Proposatzen den ariketan ere ageri diren hitz guztiak abstraktuak direnez, ikasleak ez du ongi bereiziko noiz erabili behar den genitiboa. Hitz zehatzak eta abstraktuak ageri beharko zirela uste dut, kontrastea ondo ikusteko, eta, horrela, RKI ikasleak ongi ulertzeko desberdintasuna.

**ЖЕЛАТЬ + чего?**  
удачи, счастья, успеха, любви...

**ЗАДАНИЕ 19.** (© стр. 311.)  
Слушайте диалоги. Кто чего желает? Почему?

1. Диалог «Удачи!» \_\_\_\_\_
2. Диалог «Успеха!» \_\_\_\_\_
3. Диалог «Счастья!» \_\_\_\_\_

15. Irudia. *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2009: 36).

Kuantifikatzaileen gaia 74. eta 75. orrialdeetan ikus dezakegu, baina zenbatzaile zehaztugabe orokorrak (*сколько, много, мало*) besterik ez dira ageri. Hurrengo orrialdean, 2,3 eta 4 zenbatzaileak azaltzen ditu, eta *Поехали!* eskuliburuak ez bezala, 22,33... (amaiera 2 eta 3 duten zenbakiekin baina 5 baino altuagoak direnak) zenbakiekin ere genitibo singularra erabili behar dela azaltzen du. Ez du azaltzen, aldiz, zer gertatzen den 5tik aurrerako zenbakiekin. Proposatzen den ariketa nahiko simple eta errepikakorra dela uste dut, beti zenbaki berdinak agertzen direnez, ikasleak automatikoki erantzungo baitu.

**Литр / (кило)грамм или штука?**  
↔ Пожалуйста, 2 килограмма киви! ↔ Пожалуйста, 2 киви! ↔

литр, килограмм	
два / две (22, 32...)	3 килограмма винограда
три (23, 33...) + gen. sing.	2 ананаса и 3 грейпфрута
четыре (24...)	2 литра сока и 4 йогурта

**В магазине / на рынке:**  
«Пожалуйста, один / одно / одну (+ асс.) и два / две ... тысячи (+ gen.)!»

16. Irudia. *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2009: 75).

**ЗАДАНИЕ 82. один / одна / одно + пот./асс. или два / две, 3, 4 + gen.?**  
**Впишите формы один / одна / одно и два / две.**

1. У меня 3 вопро́с \_\_\_\_\_.
  2. У них \_\_\_\_\_ 2 пробле́м \_\_\_\_\_.
  3. Мой врач говори́т, что ка́ждый день я до́лжен пить ми́нимум \_\_\_\_\_ 2 ли́тр \_\_\_\_\_ вод \_\_\_\_\_.
  4. Я так люблю́ фрукты! Ка́ждый день на у́жин я покупа́ю полкило́ виногра́д \_\_\_\_\_, 3 апельси́н \_\_\_\_\_, 4 я́блок \_\_\_\_\_ и \_\_\_\_\_ 2 бана́н \_\_\_\_\_.
  5. У нас \_\_\_\_\_ 1 маши́н \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ 2 мотоци́кл \_\_\_\_\_ и 3 велосипе́д \_\_\_\_\_.
  6. В аудито́рии сто́яло \_\_\_\_\_ 2 стол \_\_\_\_\_ и 4 сту́л \_\_\_\_\_.
  7. В оркэ́стре было \_\_\_\_\_ 1 пиани́н \_\_\_\_\_, 3 скри́пки \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ 1 контраба́с \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ 2 флэ́йт \_\_\_\_\_.
  8. Мы купи́ли 3 килогра́мм \_\_\_\_\_ ры́б \_\_\_\_\_, полтора́ килогра́мм \_\_\_\_\_ сы́р \_\_\_\_\_ и \_\_\_\_\_ 2 ли́тр \_\_\_\_\_ ви́н \_\_\_\_\_.
  9. У меня́ \_\_\_\_\_ 2 сестр \_\_\_\_\_ и \_\_\_\_\_ 2 бра́т \_\_\_\_\_ . А у вас?
  10. У нас \_\_\_\_\_ 2 ба́бушк \_\_\_\_\_ и \_\_\_\_\_ 1 де́душк \_\_\_\_\_ . А у вас?
  11. У него́ хоро́ший аппети́т. Он съел тарелк \_\_\_\_\_ суп \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ 2 бифште́кс \_\_\_\_\_ и \_\_\_\_\_ 2 сала́т \_\_\_\_\_ и выпил бутылк \_\_\_\_\_ ви́н \_\_\_\_\_, полтора́ стака́н \_\_\_\_\_ вод \_\_\_\_\_ и ча́шк \_\_\_\_\_ ко́ф \_\_\_\_\_.
- ??? Что и ско́лько вы съели́ вчера́ на обе́д? А выпили́? \_\_\_\_\_

17. Irudia. *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2009: 75).

Genitibo pluralaren kasua 99. orrialdera arte ez denez ikusten, 5tik aurrerako zenbakiak ere ez dira azaltzen orrialde horretara arte. Beraz, zenbakiak azaltzeko eta zenbakitzaileen kasuan ideia oso bat edukitzeko, liburuan aurrera eta atzera joan beharko da, eta nahasgarri geratzen da dena. Gainera, proposatzen diren ariketak, lehen aipatu den bezala, oso errepikakorrek dira eta egitura bera jarraitzen dute. Argi geratzeko, ariketa orokor bat egin beharko litzatekeela uste dut, non zenbaki guztiak nahasita ageri diren, ikasleak argi izan dezan noiz erabili behar den genitibo singularra eta noiz genitibo plurala.

Hirugarren eta azken liburuak B1 maila lantzen du eta aurreko liburuetan ikasitako guztiaren errepaso egiten du. Ondoren, atalak errusieraren sei kasuen (adjektiboak eta izenordainak) arabera banatzen ditu eta gero aditzetara jotzen du. Genitiboa lantzen duten ariketa asko, aldiz, preposizioekin dira. Beraz, liburu honetan ez daude genitiboaren erabilera preposiziorik gabe azaltzen duten ariketa askorik.

24. orrialdean konparaziozko genitiboa azaltzen du, non substantiboa konparazio-mailan adjektibo batekin doanean genitiboa jarri daitekeela azaltzen duen. Aldiz, proposatzen den ariketa bakarra oso sinplea eta laburra da; esaldian adjektiboa deklinatu besterik ez da egin behar eta esaldi guztiak egitura bera dute. Uste dut gehiago landu beharko litzatekeela; adjektiborik gabe eratzen diren konparazioak nahasirik ageri beharko lirateke, ikasleak argi izan dezan noiz erabil daitekeen genitiboa, garrantzitsua baita.

► **ЗАДАНИЕ 21. Старше или младше?**

**а) Сравните возраст. Кто старше, а кто младше? На сколько лет он / она старше / младше?**

Мне 30 лет, а ему 39.

Михайлу 34 гóда, а Лéне 32 гóда.

Дéвочке 6 лет, а мáльчику 10.

Мáме 44 гóда, а пáпе 51 год.

Он стáрше, **чем я** (nom.). = Он стáрше **меня** (gen.).  
Он стáрше **меня** **на** год.

18. Irudia. *Русский язык: 5 элементов* (Esmantova, 2011: 24).

62. orrialdean, data galdetzean zerbait gertatu dela esateko zenbaki ordinal genitiboarekin adierazten dela azaltzen du, zenbait ariketa proposatuz.

Amaitzeko, *5 Элементов Поехали!* baino osatuagoa dela esango nuke genitiboaren erabilera ikasteko, zenbait arrazoiengatik. Hasteko, maila gora doan heinean, liburua ariketa zein azalpen gehiago eransten doa. Oro har, proposatzen dituen ariketak nahiko errazak dira ulertzeko, adibide bat baino gehiago eskaintzen baititu. Aldiz, eskaintzen diren ariketak oso sinpleak eta errepikakorrek direla iruditzen zait. Halere, nahiz eta informazio guztia zatika ageri, esan beharra dago eskuliburuaren autoreak gaia sistematizatzen saiatzen dela.

### **3.2. ESKULIBURU ESPEZIFIKOAK**

#### ***3.2.1. Russian genitive: its forms and usage***

Aztertuko den lehen liburu hau genitiboaren inguruan soilik diharduen liburua da. Lehendabizi eraketa azaltzen du, eta gero erabilerarekin hasten da. 40. orrialdean, osotasunaren zati bat adierazteko genitiboa erabiltzen dela aldarrikatzen da, baina ez dago azalpenik; adibideak besterik ez. Gainera, ez dago osotasunean nola izango zen aldarrikatzen duen azalpenik, ikasleak kontrastea ikusteko eta, beraz, desberdintasuna ondo ulertzeko. Gainera, ez dago ariketarik, beraz, ikasleak ezingo luke praktikan jarri adibidean ikusitakoa. Bestalde, adjektiboarekin batera doanean konparazio-mailan ageri delarik azaltzen duen zatia substantiboen barruan dago, adjektiboen atalean egon beharrean.



Kuantifikatzaileei dagokienez, dena oso nahastuta dago. Hasteko, kuantifikatzaile zehaztuak (kilogramo bat, etab.) eta zenbakiak ageri dira, denak batera nahasturik, eta gero, kuantifikatzaile zehaztugabeak. Oso azalpen orokorrak dira, ez du azaltzen 22 edota 33 bezalako zenbakiekin zer gertatzen den. Gainera, ez dira adibide onak ageri; esaldiak ez daude osaturik, zenbakiak bakarrik daude (eta atzetik substantibo bat).

**2.1.5.1. The exact quantity**

<b>килограмм яблок</b>	a kilogram of apples
<b>семь карандашей</b>	seven pencils

Genitive singular is used to denote quantity after the numerals **two (два), three (три) and four (четыре)** and genitive plural is used to denote quantity after the numeral **five (пять)** and above.

<b>два стола</b>	two tables
<b>два слова</b>	two words
<b>две книги</b>	two books
<b>три стола, слова, книги</b>	three tables, words, books
<b>четыре стола, слова, книги</b>	four tables, words, books
<b>пять столов, слов, книг</b>	five tables, words, books

19. Irudia. *Russian genitive: its forms and usage* (N. Ryan, 2008: 40).

Partitiboari dagokionez, eskaintzen den azalpena ez da osoa. Gainera, ematen den adibideak ez du balio, *мало* kuantifikatzaile zehaztugabea ageri baita aurretik. Ondo legoke bi adibide jartzea, kontrastea ikusteko eta partitiboaren erabilera ondo ulertzeko: *Дай, пожалуйста, хлеб* “mesedez, eman ogia” (akusatiboa); *дай, пожалуйста, хлеба* “mesedez, eman ogi pixka bat” (genitiboa). Atal horren barruan, kuantifikatzaile zehaztu zein zehaztugabeak ageri dira, eta hori aurreko atalean jarri beharko litzateke, ez hemen.

**2.1.6. The partitive genitive**

This type of genitive can be found in a great number of syntactical constructions presenting an object as somehow limited, completely eliminated or indefinite.

У Нинь **мало** свободного времени. Nina has little free time.

**Quantity of uncountable notions**

<b>бокал вина</b>	a glass of wine
<b>килограмм муки</b>	a kilo of flour
<b>кружка пива</b>	a mug of beer
<b>метр ткани</b>	a meter of fabric
<b>чашка чая</b>	a cup of tea

20. Irudia. *Russian genitive: its forms and usage* (N. Ryan, 2008: 42).

Bestalde, erabilera partitiboan zenbait hitzek amaiera berezia dute kantitatea adierazteko; -y (-ю) amaiera, eta horren inguruko informaziorik ez da ageri.

Aditzen kasua azaltzen duen atala ere oso nahasirik dago (45. or.). Hasteko, oin ohar gisa adierazten du, substantiboa zehatza baldin bada akusatiboa jarri daitekeela, eta bestela, genitiboa. Azken hori aditz intentsionalen barruko azalpena izango litzateke, eta ez dago horren inguruko informaziorik. 49. orrialdean genitiboa behar duten aditzen zerrenda bat ageri da. Bertan, *желать* “desiratu” aditz intentsionala ageri da, eta aditz horrek ez du zertan genitiboa erabili behar, objektuaren semantikaren arabera izango baita. Beraz, ikusten dugu azalpenak osatugabeak direla, informazioa sakabanaturik ageri dela, eta gainera, ez dela zuzena.

<b>2.2.5. The verbs which govern the genitive case</b>	
The following verbs govern the genitive case. Any noun, pronoun, adjective, numeral or a participle which is used after the following verbs must be in the genitive case.	
<b>бояться</b>	to be afraid of
<b>держаться</b>	to hold, to adhere
<b>дичиться</b>	to shun
<b>добиваться/добиться</b>	to strive for
<b>достигать/достичь</b>	to achieve
<b>жаждать</b>	to crave for
<b>желать/пожелать</b>	to wish, to desire
<b>заслуживать</b>	to deserve
<b>избегать/избежать</b>	to avoid
<b>касаться/коснуться</b>	to touch, to concern
<b>лишаться/лишиться</b>	to be deprived, to lose
<b>опасаться</b>	to fear
<b>остерегаться</b>	to beware
<b>пугаться/испугаться</b>	to be frightened
<b>слушаться/послушаться</b>	to obey
<b>стоять</b>	to deserve
<b>сторониться</b>	to shun, to keep away from
<b>стыдиться</b>	to be ashamed of
<b>чуждаться</b>	to keep away from

21. Irudia. *Russian genitive: its forms and usage* (N. Ryan, 2008: 48).

Ezeztapenei dagokienez, ezeztapena egitura inpersonala dela adierazten du, baina ez du zergatia adierazten; ez du aditz existentzialekin gertatzen dela azaltzen edota posesiboen kasua zein den adierazten.

Orokorrean, informazioa oso nahasia eta osatugabea dela iruditzen zait. Erabilera ez du egitura finko eta logiko batean azaltzen, atalak nahasirik ageri dira (hots, partitiboaren barruan kuantifikatzaile zehaztugabeena azaltzen du), informazioa falta da (-y/-ю amaiera duten hitzen kasua, osotasuna edo zati bat adierazi nahi denean zer egin behar

den, bolumen neurriak adierazten dituen hitzekin zer gertatzen den...), eta ageri diren adibideak ez dira nahikoak, sinpleegiak dira (partitiboaren azalpenean ez dago kontrastea erakusten duten adibiderik). Eskuliburu espezifikoa izanik, informazio zehatz eta osatuago bat eskaini beharko lukeela iruditzen zait. Gainera, ez dago ariketarik, eta nahiz eta eskuliburu espezifiko bat izan, ariketaren bat edo beste gehitzea ondo legoke, praktikan jarri dezan ikasleak ikasitakoa.

### ***3.2.2. Какой надеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление***

Eskuliburu espezifiko honek errusieraren kasuak aztertzen ditu. Genitiboaren kasua lehendabizikoa da (11. or.), eta bi zatitan banatuta dago: preposiziorik gabe eta preposizioekin. Azalpen oso orokorrak ematen ditu, horrek dituen salbuespenak edota azpiatalak aztertu gabe. Gainera, azalpen orokor horietan ere ez da zergatia azaltzen.

Esaterako, zati bat adierazteko bada genitiboa erabiltzen dela esaten du, baina adibidean ageri diren elementuek, hots, *мёд* “eztia” eta *чай* “tea” hitzek amaiera desberdin bat dutela ez du azaltzen, beraz, ikasleak gaizki deklinatuko luke hitza.

3) обозначает часть:

*а) предмета:*

**страница (учебник, словарь, справочник, тетрадь), ветка (дерево), кусок (хлеб), ручка (дверь), угол (комната), крыша (дом, сарай), лист (бумага);**

*б) вещества:*

**кусок (сахар), стакан (чай), банка (мёд), купить (сахар, молоко), кусок (сыр) (см. примечание 2 к таблице 1);**

22. Irudia. *Какой надеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление* (Velitxko, 2008: 9).

Irudian ikus daitekeen bezala, eskuliburu honek eskaintzen dituen adibideak oso eskasak dira. Hasteko, ez ditu esaldiak eskaintzen ikasleak argi ikus dezan, eta gainera, ageri diren elementuak ez daude genitiboan deklinatuta. Ikaslearentzat ez dela baliagarria deritzot, azken finean, azalpen guztiak adibideekin ulertzen baitira.

Substantiboak adjektiboen ondoren baldin badaude konparazio-mailan genitiboa erabiltzen dela adierazten du, baina aurreko kasuan bezala, ez dago adibiderik. Zenbakiak 16. orrialdera arte ez ditu aipatzen, eta gainera, informazioa oso nahastuta eta

modu osatugabeen eskaintzen du: 2 eta 5 zenbakiak besterik ez ditu aipatzen, eta ez du adierazten zein zenbakirekin erabili behar den singularra eta zeinekin plurala. Are gehiago, kuantifikatzaile zehaztugabeen inguruan ez du ia informaziorik ematen, *много* hitza besterik ez du aipatzen. Aditzei dagokienez, ez dago ia informaziorik: esanahi existentzial gisa uler daitekeen aditz bakarra aurki dezakegu. Ikaslearentzako oso nahasgarria da, ez baitu ezer argi izango.

3. На столе много ...	книга
две	ручка
пять	карандаши
два	журнал
4. В библиотеке не оказалось ...	эта книга
	толковый словарь
	нужное пособие
	учебник по языкознанию

23. Irudia. *Какой падеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление* (Velitxko, 2008: 14).

Arestian esan bezala, azalpenak oro har nahiko sinpleak dira (erabilera partitiboan hitzek amaiera desberdina duela ez du aipatzen; -y/-ю amaiera). Ondorioz, ikasleak hori irakurrita genitibo deklinabide orokorra erabiliko luke. Ariketak ere oso errepikakorrek dira, ez du genitiboaren erabilera ulertzen laguntzen, nola deklinatzen den praktikatzeko besterik ez du balio. Beraz, ariketa hauekin RKI ikasleak ez du genitiboaren erabilera ondo barneratuko:

#### **Родительный падеж без предлога:**

страница (книга), стена (дом), часть (здание), изучение (язык), чтение (книга), просить (помощь), строительство (город), крыша (здание), хотеть (счастье), желать всем (здоровье), достичь (вершина горы), добиться (успех), добиться (результаты).

24. Irudia. *Какой падеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление* (Velitxko, 2008: 19).

Amaitzeko, eskuliburu espezifiko bat izanik, ez dela zehatza esango nuke, eta RKI ikasle bati ez diola, irakaslearen azalpen gehigarririk gabe, genitiboaren erabilera ulertzen eta barneratzen lagunduko. Hasteko, adibideak ez dira osotasunean ageri, hitz

solteak besterik ez, eta eskaintzen dituen hitz horiek ere deklinatu gabe daude, irudietan ikusi dugun bezala. Ematen diren azalpenak ere oso eskasak dira; kuantifikatzaile guztiak nahasirik ageri dira (*много, два, пять*), eta deklinatu gabe ageri direnez, RKI ikasleak ez du jakingo noiz erabili behar den zehazki genitiboa, eta erabili behar baldin badu, noiz erabili behar duen singularra eta noiz plurala (2 eta 5 zenbakiekin ikusi den bezala). Azalpenaren ordena ere nahasgarria da, dena sakabanatuta azaltzen du; hasieran kasu guztiak (preposizioekin eta gabe) azaltzen ditu, eta kasu guztiakin behin amaituta, berriro ekiten dio (kasu guztiak azaldu azalpen gehiago erantsiz). Aitzitik, azalpen batzuk falta dira: ez du aipatzen posesiboetan komuntadura galdu egiten denik, adjektiboek konparazio-mailan forma luze edo analitikoa badute ezin direla erabili, ezta 32,33,23... zenbaki konposatuekin zer gertatzen den ere. Oso nahasgarria da, ikasleak aurrera eta atzera joan beharko baitu azalpen bat osatzeko.

### 3.2.3. Casos y preposiciones en el idioma ruso

Aztertuko dudan azken eskuliburu espezifikoak *Casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993) izena du. Genitiboaren erabilera 68. orrialdean hasten da, eta ezeztapenaren kasua aipatzen du (*нет, не будет* eta *не было* ostean genitiboa behar dela adierazten du). Posesiboekin ezeztapenean jartzean egitura inperzonal gelditzen dela azaltzen duen taula bat aurkezten du, eta baliagarria dela iruditzen zait, argi ikusten baita komuntadura dagoenean eta ez dagoenean nolakoa den (nahiz eta singularraren kasua bakarrik aipatu):

Construcción negativa impersonal con las palabras  
**нет, не было, не будет**

Tiempo	Oraciones afirmativas		Oraciones negativas	
	Nominativo Pregunta <i>что?</i>		Genitivo Pregunta <i>чего?</i>	
Presente	У меня есть	журнал. письмо. газета.	У меня нет	журнала. письма. газеты.
Pasado	У меня	был журнал. было письмо. была газета.	У меня не было	журнала. письма. газеты.
Futuro	У меня будет	журнал. письмо. газета.	У меня не будет	журнала. письма. газеты.

25. Irudia. *Casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993: 82).

90. orrialdean genitiboaren erabilerak azaltzen dituen taula bat dago, baina oso taula orokorra da, eta erabilera asko falta dira (adjektiboak, aditzak, kuantifikatzaileak...). 235. orrialdean genitiboari buruzko informazioaren jarraipena aurkituko dugu. Ikusten den bezala, informazioa liburuan zehar oso sakabanatuta dago, eta hori ikaslearentzako nahasgarria dela uste dut. 237. orrialdean aditzaren ostean substantiboa abstraktua bada genitiboa erabili behar dela azaltzen du. Adjektiboekin (konparazio-mailan) genitiboa erabili daitekeela adierazten du oso modu osatuan, izan ere, kontuan hartzen du genitibo konparatzailea forma simple edo sintetikoarekin soilik erabil daitekeela:

Тáня в́ыше Лéны.  
Лéна н́иже Тáни.

Андрéй н́иже В́иктора.  
В́иктор в́ыше Андрéя.

Las palabras **стáрше** ≠ **молóже**, **в́ыше** ≠ **н́иже**, **л́учше** ≠ **х́уже** son adjetivos en grado comparativo simple (esta forma está representada por una palabra).

El sustantivo que designa una persona o un objeto con los cuales comparan otra persona u otro objeto, va después del adjetivo en grado comparativo simple, en genitivo y sin preposición.

26. Irudia. *Casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993: 237).

241. orrialdean taula bat ageri da, non genitiboaren erabilera preposiziorik gabe ageri den.

Usos	Ejemplos
1. Para designar el poseedor del objeto. Preguntas <i>чей?</i> ( <i>чья?</i> <i>чьё?</i> <i>чьи?</i> )	Э́то кн́ига преподава́теля. Э́то уче́бник студéнтки. Мы чита́ли рассказ Че́хова.
2. Para denotar la cualidad de un objeto. Preguntas <i>како́й?</i> ( <i>кака́я?</i> <i>како́е?</i> <i>какие?</i> )	На откры́тке мы ви́дим зда́ние гостини́цы. В клубе́ был ве́чер поэ́зии.
3. Para negar mediante las palabras <b>нет</b> , <b>не было</b> , <b>не будет</b> . Preguntas <i>чего́?</i> <i>кого́?</i>	У меня́ нет каранда́ша. У тебя́ не бу́дет уче́бника. У нас не́ было фотоаппа́рата. В аудито́рии нет магни́тофона. Та́ни нет до́ма.
Usos	Ejemplos
4. Para negar después de los verbos transitivos. Pregunta <i>чего́?</i>	Студéнт не в́ыполнил зада́ния. Учени́к не реши́л зада́чи.
5. Con numerales cardinales <sup>1</sup> .	У меня́ есть два конве́рта. У тебя́ есть три ма́рки. У Анто́на четы́ре бра́та.
6. Después del grado comparativo de los adjetivos y adverbios.	Сестра́ молóже бра́та. Брат ста́рше сестры́.
7. Para expresar el tiempo (genitivo de fecha). Preguntas <i>како́го числа́?</i> <i>когда́?</i>	Заня́тия в институ́те начина́ют-ся пе́рвого сентя́бря.

27. Irudia. *Casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993: 241).

Ageri diren ariketak oso errepikakorrak dira eta egitura bera jarraitzen dute. Hurrengo ariketan, ikasleak esaldiak ezeztatu behar dituzte, genitiboaren kasua erabiliz. Beraz, RKI ikasleak automatikoki erantzungo du, eta ez du ondo ulertuko genitiboaren ezeztapenean badirela beste kasu desberdinak, hots, ezeztapena existentzialekin.

**Ejercicio 221.** Conteste negativamente a las preguntas siguientes empleando el caso genitivo.

1. Мигель выучил песню? 2. Марина знает телефон Тани? 3. Светлана слушала музыку? 4. Максим написал письмо? 5. Андрей прочитал статью? 6. Тереса исправила ошибку в тетради? 7. Лена перевела текст? 8. Антон приготовил задание? 9. Николай сдал экзамен? 10. Виктор читал журнал? 11. Преподаватель задал вопрос? 12. Они посмотрели телепередачу? 13. Вера решила задачу? 14. Борис получил письмо? 15. Тамара послала телеграмму? 16. Мигель купил учебник? 17. Почтальон уже принес почту? 18. Ребёнок съел яблоко?

28. Irudia. *Casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993: 235).

Lehenago aipatu dudan taulan bezalaxe, informazioa oso eskasa da eta taula horren ostean ez dago ariketarik ikasleak genitiboaren erabilera praktikatuz dezan. Esaterako, zenbakiekin zer gertatzen den oso modu laburrean azaltzen du, eta adibide gutxi jartzen ditu. Gainera, 2, 3 eta 4 zenbakiekin gertatzen dena soilik azaltzen du. Adjektiboen azalpena (konparazio-mailan) ondo azaltzen duela iruditzen zait, kontuan hartzen baitu konparazio-mailan genitiboa forma sinple edo sintetikoarekin soilik erabil daitekeela. Ezeztapenen kasuan ere, nahiz eta singularrean soilik ageri, baliagarria dela iruditzen zait, argi ikusten baita komunztadura galdu egiten dela. Oro har, azalpenak baliagarriak direla iruditzen zait (adjektiboen eta ezeztapenen kasuan), baina kuantifikatzaileen kasuan azalpen orokorregia dela iruditzen zait (5 zenbakitik aurrera zer gertatzen den ez du azaltzen). Ageri diren ariketak aurreko irudian jarritakoaren egitura bera jarraitzen dute; oso errepikakorrak eta sinpleak dira, hasieratik esaten baita genitiboa behar dela, eta, beraz, automatikoki erantzungo dute ikasleek. Eskuliburu espezifiko bat izanik, zehaztasun bat eskaini beharko lukeela iruditzen zait, kasu bakoitzak dituen salbuespenak eta azpiatalak ongi azalduz.

### **3.3. ARIKETA LIBURUAK ETA GRAMATIKA PRAKTIKOAK**

#### **3.3.1. *El ruso. Gramática práctica***

Landuko den lehen gramatika liburua *El ruso. Gramática práctica* (Pulkina, 2007) da. Oso liburu ezaguna da, eta hizkuntza askotara itzulita dago. Esan daiteke errusiera

atzerriko hizkuntza gisa irakasteko erreferente bat dela. Liburu honen helburua errusierako gramatika osatu bat biltzea da.

Genitiboa 45. orrialdean aurkituko dugu. Genitibo kasuaren inguruko azalpen eta ariketak bi ataletan banatuta daude: lehendabizi genitiboaren erabilera preposiziorik gabe, eta gero, preposizioekin. Adjektiboen kasuan, konparazio-mailan adjektibo baten ondoan doanean genitiboa erabiltzen dela azaltzen du nahiko modu errazean. Gero, gogorarazten du ez dela derrigorrezkoa, genitiboa erabili beharrean nominatiboa erabili daitekeela *чем* konjuntzioaren ostean. Proposatzen den ariketa azalduakoa praktikan jartzeko egokia dela deritzot:

**Ejercicio 69.** Copien las oraciones dadas substituyendo los substantivos en nominativo con la conjunción *чем* por los mismos substantivos en genitivo.

**Modelo:** *Москва́ больше, чем Киев.*  
*Москва́ больше Киева.*

**1. Во́лга шире, чем Ока́. 2. Климáт Кры́ма теплее, чем кли́мат Пово́лжья. 3. Зо́лото дороже, чем серебро́. 4. Сын стал выше, чем о́тец.**

29. Irudia. *El ruso. Gramática práctica da* (Pulkina, 2007: 48).

Gero, *полный* “betea” eta *достойный* “duin” adjektiboen ostean genitiboa erabili behar dela azaltzen du, baina ez dira bakarrak (hots, *лишённый* “gabezia izan”), eta, beraz, ikasleei bi horiek soilik erakutsiz gero, beste adjektiboekin gaizki egingo lukete.

Jarraian kuantifikatzaileak azaltzen ditu. Lehendabizi genitiboa behar duten kuantifikatzaileak ageri dira, eta gero, ariketak proposatzen ditu. Zenbakien kasuan ematen den azalpena ez da guztiz osoa. 2,3 eta 4 zenbakien ostean genitibo singularra jarri behar dela adierazten du, baita 22, 33... bezalako zenbakiekin ere, eta gainontzeko zenbakiekin (1 zenbakia izan ezik) genitibo plurala erabili behar dela azaltzen du, zenbaki horiek nominatibo edo akusatiboan doazen heinean. Beste kasuetan zer gertatzen den, hau da, akusatibo animatua denean edota beste kasu batean daudenean zenbaki horiek (datiboan, instrumentalean...) nola deklinatu behar diren ez du azaltzen.

Aditzen azalpena, berriz, oso nahasgarria dela iruditzen zait. Hasteko, *на-* aurrizkia duten zenbait aditzek genitiboa behar dutela azaltzen du. Are gehiago, esan daiteke *на-*



aurrizkiak zentzu kuantifikatzailea ematen diela aditz hauei, eta, beraz, nik kuantifikatzaileen barruan sartuko nuke. Aditz horiek burutugabeen daudenean akusatiboan jarri behar dela esaten du, baina ez du zergatia azaltzen. Hain zuzen ere, argi geratzeko, azaldu egingo nuke burutugabeekin ezin dela *na-* aurrizkia erabili, eta, beraz, erabilera kuantifikatzailea aditz burutuekin bakarrik erabil daitekeela, RKI ikasleak argi izan dezan. Halere, jarraian aurkezten den ariketa baliagarria dela iruditzen zait, ikasleak berak azaldu behar duenez genitiboa edo akusatiboa erabili izanaren zergatia, errazago barneratuko duelako, azaldu ahal izateko argi izan beharko baitu.

**Ejercicio 74.** Expliquen el empleo del genitivo y el acusativo de los sustantivos en las oraciones siguientes.

1. Нўжно купїть тетрадей и карандашей. Я забыл дома тетради и карандаши. 2. Больной попросил воды. Он выпил всю воду, которая была в графине. 3. Мать налила мне чаю. Я выпил чай и встал из-за стола. 4. Отец с братом во дворе пилили и кололи дрова. Потом они принесли дров, и мы затопили печь.

30. Irudia. *El ruso. Gramática práctica da* (Pulkina, 2007: 50).

Aditzei dagokionez, azalpena ez dela zuzena esan behar da, azalpeneko aditzak aditz intentsionalak baitira. Nahasgarria da:

Los sustantivos en genitivo que siguen a estos verbos, designan el objeto deseado, esperado, pedido, etc.:

Мы хотим мира.	Deseamos la paz.
Мы добиваемся хорошей успеваемости.	Procuramos obtener buenas notas en el estudio.
Он искал в книгах ответа на этот вопрос.	Buscaba en el libro respuesta a esta pregunta.

Los verbos *добиваться lograr* y *достигать alcanzar* se emplean solamente con complemento en genitivo.

Los verbos *хотеть querer*, *ждать esperar*, *искать buscar*, *просить pedir*, *требовать exigir* pueden llevar complemento en genitivo o en acusativo.

Habitualmente, el complemento en acusativo con estos verbos se emplea cuando el sustantivo designa una persona u objeto determinados, concretos, por ejemplo:

Acusativo	Genitivo
Я ищу книгу.	Я ищу поддержки.
Estoy buscando el libro.	Estoy buscando apoyo.
Она ждёт подругу.	Мы ждём ответа на наш вопрос.
Ella espera a la amiga.	Esperamos respuesta a nuestra pregunta.

31. Irudia. *El ruso. Gramática práctica da* (Pulkina, 2007: 53).

Genitiboa behar duten aditzak atal batean jarri beharrean, eta bigarrenko atalean aditz intentsionalak aurkeztu beharrean, dena nahastuta ageri da. Hasteko, hasierako bi aditzek, *хотим* eta *искал*, objektuarekiko desioa edo nahia adierazten dute, baina ez dute genitiboa zertan beti erabili behar. Aldiz, *добиваемся* “lortu” aditzak errektzio genitiboa izango du beti. Adibidez, *мы хотим мира* (bakea nahi dugu) esaldian genitiboa behar da, aditzaren objektua abstraktua delako. *Мы хотим карандаш* (arkatza nahi dugu) esaldian, berriz, desiratzen den objektua zehatza denez, akusatiboa erabiltzen da. Genitiboa eskatzen duten bi aditz ageri dira, baina ez dira bakarrak: *бояться* “beldur izan”, *избегать* “saihestu”, *опасаться* “kezkatu”... Aurrerago ageri dira beste batzuk, baina oso sakabanatuta dago dena, eta ikaslea galdu egin daiteke.

Oro har, eskaintzen diren ariketak baliagarriak direla deritzot, baina azalpenak oso nahasgarriak dira. Hasteko, zenbakiak akusatibo animatuan edota beste kasu batean, hots, datiboan, doazenean zer gertatzen den ez du azaltzen. *На-* aurrizkia duten aditzen atala ez da ongi ulertzen, ez baitago kuantifikatzaileen atalean eta ez baitu azaltzen zergatik ezin den forma burutugabeen erabili. Amaitzeko, genitiboa eskatzen duten aditzen zerrenda ere nahasgarria da, aditz intentsionalak topa daitezkeelako bertan (*хотеть*). Esan dezakegu Pulkinaren eskuliburuak, nahiz eta ia alderdi guztiak jorratu, landutakoa nola lantzen duen dela arazoa.

### ***3.3.2. Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология***

*Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Glazunova, 2007) liburuak B2-C1 mailerako gramatika eskaintzen du eta ТРКИ-2 nahiz ТРКИ-3 prestatzen ari diren ikasleentzako egina dago. Liburuki hori 7 ataletan banatuta dago eta atal bakoitzak azalpen gramatikalak eta ariketak eskaintzen ditu, baita atalaren amaieran berrikuspen ariketak ere. Ariketa liburu honek badu, ordea, berezitasun bat: hasieran ariketen aurretik azalpenak ematen ditu, eta aurrerago, ariketen ondoan, gainontzeko azalpenak sartzen ditu, ohar modura.

13. orrialdean hasten da genitiboaren erabilera azaltzen. Hasieran, lehen aipatu bezala, taula bat ageri da genitiboaren erabilera preposiziorik gabe nolakoa den azalduz eta adibideak emanez. Proposatzen den lehen ariketa ezeztapena lantzeko da: esaldiak

baiezkoan ageri dira eta ezeztapenean jarri behar dira. Sarrera gisa ezeztapenaren kasuan genitiboaren erabilera barneratzen joateko ona dela iruditzen zait.

Образец: На улице дождь — На улице нет дождя (На улице нет ни дождя, ни снега); Купи подарок — не покупай\* подарка.

а) 1. В стакане есть вода; 2. В моём подъезде есть лифт; 3. У водителя есть талоны и карточки; 4. В театре есть буфет; 5. На первом этаже есть гардероб; 6. В гастрономе есть молочный отдел; 7. — Разве у вас есть свободное время? 8. — Скажите, пожалуйста, у вас есть тетради в клетку? 9. Между действиями спектакля есть перерыв; 10. У меня есть своё особое мнение по этому вопросу; 11. В газете есть программа передач на эту неделю.

\* В отрицательных конструкциях с императивом чаще всего употребляются глаголы несовершенного вида.

б) 1. Прочитай\* статью в газете; 2. Принеси хлеб, масло и ветчину; 3. Заплати деньги в кассу; 4. Налей молоко в кружку; 5. Объясни своё поведение; 6. Заполните анкету; 7. Возьми новые книги в библиотеке; 8. Сообщь дату приезда; 9. Попросите совет у своего друга; 10. Возьмите тёплые вещи; 11. В этом месяце мы уже получили стипендию.

32. Irudia. *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Glazunova, 2007: 13).

15. ariketa oso baliagarria dela iruditzen zait. Bertan, esaldiak banatu egin behar dira esaldiko substantiboaren esanahiaren arabera; substantiboa abstraktua edo zehatza den, edota zati bat adierazten duen esan behar da. Ikasleak lantzeko erabilgarria dela pentsatzen dut, genitiboaren hainbat erabilera nahasirik daudenez hobeto praktikatu ahal izango baitu. Gainera, taulatxo bat ageri da azalpen bat gehituz ohar modura. Bertan, *ждать* “espero izan”, *хотеть* “nahi” eta *искать* “bilatu” aditzek esanahi abstraktua (eta, beraz, genitiboa) zein zehatza (akusatiboa) izan dezaketela azaltzen du.

15. Разделите словосочетания на три группы в зависимости от значения существительного: 1) конкретный предмет; 2) абстрактное понятие; 3) часть предмета.

Ждать подру́гу, ждать по́мощи; хоте́ть конфе́ту, хоте́ть незави́сности, хоте́ть арбу́за; иска́ть кни́гу, иска́ть подде́ржки; проси́ть ру́чку, проси́ть внима́ния, проси́ть де́нег; тре́бовать необхо́димый докуме́нт, тре́бовать справедливо́сти.

! С глаголами *ждать, хотеть, искать* и другими существительные, обозначающие конкретные предметы, употребляются в винительном падеже; абстрактные существительные и существительные, обозначающие часть предмета, — в родительном.

33. Irudia. Grammatika rusского языка в упражнениях и комментариях. Морфология (Glazunova, 2007: 14).

41. orrialdean, bai akusatiboa bai genitiboa noiz erabili behar diren azaltzen duen taula bat dago. Taula hori oso baliagarria dela deritzot, bertan, argi eta garbi azaltzen baitu noiz erabili behar den kasu bakoitza.

<b>Винительный падеж обязателен:</b>	<b>Родительный падеж обязателен:</b>
<p>1) в конструкциях с частичным отрицанием: Он не читает, а просматривает <b>газеты</b>;</p> <p>2) в конструкциях со сложным предикатом: я не смог купить <b>тетрадь</b>; он не успел найти <b>решение</b>; он не считал <b>это занятие</b> полезным;</p> <p>3) в устойчивых фразеологических словосочетаниях: не морочь мне <b>голову</b>; не заговаривай мне <b>зубы</b>.</p>	<p>1) в устойчивых словосочетаниях: не играть <b>ро́ли</b>, не обраш́ать <b>внима́ния</b>, не прида́вать <b>значе́ния</b>, не получа́ть <b>призна́ния</b>, не находить <b>отклик</b> и <b>других</b>;</p> <p>2) в сочетании с глаголом <b>име́ть</b>: не имеет <b>значе́ния</b> (влия́ния, смы́сла, возмо́жности, де́нег, маши́ны);</p> <p>3) при наличии слов <b>никако́й, ниче́й, а также частицы ни</b>: не получил <b>никако́го подарка</b>; не послал <b>ни письма́, ни откры́тки</b>;</p> <p>4) в устойчивых фразеологических сочетаниях: не сводить <b>глаз</b> (с кого?); не находить себе́ <b>ме́ста</b>; не сказа́ть <b>худо́го слова́</b>.</p>
<b>Винительный падеж чаще употребляется:</b>	<b>Родительный падеж чаще употребляется:</b>
<p>1) у существительных, обозначающих определённый конкретный предмет: Я не купил <b>кни́гу</b> (о которой ты мне говори́л); Не потеря́й <b>биле́т</b> на по́езд;</p> <p>2) у одушевлённых предметов и имён собственных: Я не видел <b>те́тю</b> три го́да; Он не любит <b>Москву́</b>;</p> <p>3) при наличии слов <b>не́кому, не́где, не́ к чему</b>: не к чему приложить <b>си́лы</b>; <b>не́где</b> опубликова́ть <b>рабо́ту</b>;</p> <p>4) при наличии частиц с отрицанием <b>едва́ не, чуть не</b>: <b>едва́ не</b> уронил <b>ва́зу</b>, <b>чуть не</b> разби́л <b>тарелку́</b>.</p>	<p>1) у отвлечённых и абстрактных существительных: не причинить <b>беспоко́йства</b> (бóли); не уронить <b>досто́инства</b>; не вы́нести <b>трудностей</b>;</p> <p>2) в сочетании с глаголами чувственного и мысленного восприятия не видеть, не слышать, не чувствовать, не замечать, не понимать, не знать, не помнить и другими: не <b>по́мнить а́дреса</b>; не <b>замеча́ть успе́ха</b>.</p>

34. Irudia. Grammatika rusского языка в упражнениях и комментариях. Морфология (Glazunova, 2007: 41).

Gero, azaldutakoa lantzeko ariketak aurkezten dira. Bertan, ikasleak parentesi artean ageri den hitza akusatiboan edo genitiboan jarri behar duen aukeratu behar du. Hona hemen adibide bat:

**78. Прочитайте предложения. Определите падеж выделенных слов. Объясните употребление винительного или родительного падежа в объектном значении. Укажите варианты.**

1. Не пой, красавица, при мне Ты *несен* Грузии печальной: Напоминают мне *онé!* Другую жизнь и берег дальний (А.Пушкин);  
2. На лунé не растёт Ни одной *былинки*, На лунé весь народ Делает корзínки — Из солóмы плетёт Лёгкие корзínки (О.Мандельштам);  
3. Не слы́шно *шúму* городскóго, Над нéвской бáшней тишинá, И бóльше нет *городовóго* — Гуляй, ребята, без винá! (А.Блок); 4. Я не любví твоёй

35. Irudia. *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Glazunova, 2007: 42).

Ageri diren ariketak oso aproposak direla uste dut, ariketa bat baino gehiago izateaz gain, luzeak direlako, eta, beraz, ongi landu eta barneratzeko balio dutelako. Gainera, askotariko esaldiak ageri dira, baita kasu desberdinak nahasturik ere (azken ariketan bezala), eta horrek asko laguntzen dio RKI ikasleari ongi barneratzen eta ulertzen, berak aukeratu behar izaten baitu kasua.

Azalpenei dagokionez, azalpen osatuak direla deritzot. Hasteko, ariketekin hasi baino lehen azalpen osoak ematen ditu, akusatiboa eta genitiboa noiz erabili behar den azaltzen duen atalean bezala, orden logiko bati eutsiz: hasieran, ezkerrezko zutabean lehen bi erabilerak sintaktikoak dira, hirugarrena lexikoa da, jarraian datozen biak semantikoak eta azken biak, lexikoak. Eskuineko zutabean, lehen lau erabilerak lexikoak dira, eta azken biak semantikoak. Amaitzeko, ariketetan informazio gehigarria ageri da, hasieran eskaintzen duen azalpena osatzeko (Glazunova, 15. ariketa; 14. or.), eta hori RKI ikaslearentzat oso baliagarria dela deritzot, ariketa egitean alboan taulatxo bat edukitzeak asko laguntzen baitu, lana errazten baitio ikasleari informazioa bilatzerako orduan.

#### 4. ONDORIOAK

Hasteko, ezinbestekoa da gramatikako atal hau irakatsi behar duenak garbi izatea genitiboaren erabilera azaltzen den unetik, aparteko zailtasuna duen alderdi batez ari garela. Erabilera hain desberdinak izateak eta erabileraren barruan salbuespenak egoteak, oso arrotz bihurtzen du genitiboaren erabilera (preposiziorik gabe) gure ingurukoentzat, eta azken finean, hizkuntza bat ikastean zailenak izaten diren atalak identifikatu ezin diren horiek izan ohi dira. Euskararen kasuan, zerbait lagundu dezakeela esan dezakegu, euskarak berak kasuak baititu, baina RKI ikasleak euskaraz ez baldin badaki edota beste hizkuntza bateko alderdiren batekin ezin baldin badu konparatu, lan gehiago egin beharko du hura ulertzeko.

Behin analisi praktikoa amaituta, ondorio garbi bat atera dut: lan honen moduko esparru teoriko bat sortzeko, ezinbestekoa da eskura ditugun materialak nahastuta erabiltzea, genitiboaren erabilera (preposiziorik gabe) ongi irakatsi nahi bada. Azken finean, eskuliburu orokorrek gramatikako alderdiak ez dituzte behar adina sakon lantzen (esaterako, *Поехали!* liburuan posesiboetan aditzak komunztadura galtzen duela ez du adierazten, eta *Русский язык: 5 элементов* liburuan dagoen informazioa nahasgarria da), eta, oro har, informazioa sakabanatuta ematen dute. Ondorioz, beste mota bateko materialarekin osatu beharko genuke lanketa. Beraz, azalpen osatu bat eskaini ahal izateko eskuliburu espezifikotara jo beharko luke irakasleak. Nahiz eta azalpen osatuenak *casos y preposiciones en el idioma ruso* (E. Zakhava-Nekrasova, 1993) eskuliburuak eskaini, hutsuneak daude: ezeztapena existentzialekin nolakoa den ez du azaltzen, ezta 5 zenbakitik gorakoekin zer gertatzen den ere. *Russian genitive: its forms and usage* eta *Какой падеж? Какой предлог? Глагольное и именное* liburukiek ere ez dute informazio osatua ematen: -y/-ю amaiera bereziaren inguruko informaziorik ez da ageri. Gainera, *Какой падеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление* eskuliburuan aztertu dugun bezala, ez dago ia azalpenik, eta ageri diren adibideak *Russian genitive: its forms and usagen* bezala, ez dira baliagarriak (sinpleegiak dira, eta ez dago esaldi oso bat erabilera ongi ikusteko), eta ikaslea oraindik eta gehiago nahastuko du. Eskuliburu espezifikoak izanik, hutsune handi bat dutela esango nuke, genitiboaren erabilera guztiak agertu beharko liratekeelako, behin gaiarekin hasita, egokiena azalpen osoa ematea baita. Eskuliburu espezifikoek ariketa gehiago eskainiko balituzke (aditz intentsionalak hitz abstraktu eta zehatzekin, akatsak zuzendu...),

errazagoa izango litzateke ikaslearentzat genitiboaren erabilera barneratzea, eskuliburu espezifikotan (*Russian genitive: its forms and usage* izan ezik, ez du ariketarik eskaintzen) ageri diren ariketak nahiko errepikakorrak baitira, eta ikasleak automatikoki erantzungo luke (Zakhava-Nekrasova, 221. ariketa; 235. or.).

Gramatika praktikoei dagokionez, ahalik eta gramatika-atal gehien aintzat hartu nahi dituztenez, batzuetan ariketak eskas samar geratzen direla esango nuke, baita horien aurretik ageri diren azalpenak ere (Pulkinaren kasua, esaterako). Bestalde, Glazunovaren gramatika praktikoa oso egokia dela iruditzen zait, azalpen osatuak eskaintzeaz gain ariketetan taulak gehitzen baititu ohar modura. Are gehiago, eskaintzen dituen ariketak orotarikoak dira (hots, akusatiboa edota genitiboa aukeratzea). Behin teoria guztia azaldu eta gero, gaia lantzeko bi gramatika praktikoei eskaintzen dituzten ariketak egokiak iruditzen zaizkit, ariketa aniztasuna ageri baita: akatsak zuzentzea edota kasu bat edo beste aukeratzearen zergatia azaltzea (adibidez: Pulkina, 74. ariketa; 50. or.). Azken finean, ikasleak zergatia azaltzeko gaia ongi ulertu beharko du, beste modura automatikoki jarriko baitu genitiboa.

Amaitzeko, esango nuke irakasleak ongi azaldu beharko duela teoria osoa, genitiboaren erabilera guztiak aintzat hartuz, eta, gero, ahalik eta ariketa gehien egin, RKI ikasleak gaia ongi barneratu eta ulertu dezan. Ezina, ekinez egina.

## 5. ERREFERENTZIAK

- ВЕЛИЧКО, А. В., БАШЛАКОВА, О. Н. (2008). *Какой падеж? Какой предлог? Глагольное и именное управление*. Москва.
- ГЛАЗУНОВА, О. И. (2007). *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- РАЙАН, Н. (2008). *Родительный падеж в русском языке формы и употребление*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- ЧЕРНЫШОВ, С. (2009). *Поехали! Русский язык для взрослых. Начальный курс*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- ЧЕРНЫШОВ, С., ЧЕРНЫШОВА, А. (2009). *Поехали!-2. Русский язык для взрослых. Базовый курс, Том I*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- ЧЕРНЫШОВ, С., ЧЕРНЫШОВА, А. (2009). *Поехали!-2. Русский язык для взрослых. Базовый курс, Том II*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- ЭСМАНТОВА, Т. Л. (2012). *Русский язык: 5 элементов: уровень А1 (элементарный)*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- ЭСМАНТОВА, Т. Л. (2009). *Русский язык: 5 элементов: уровень А2 (базовый)*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- ЭСМАНТОВА, Т. Л. (2011). *Русский язык: 5 элементов: уровень В1 (базовый - первый сертификационный)*. Санкт-Петербург: Златоуст.
- LEVINE, J. (2009). *Russian Grammar*. New York: McGraw-Hill.
- PULKINA, I., ZAKHAVA-NEKRASOVA, E. (2000). *El ruso. Gramática práctica*. Madrid: Rubiños-1860.



TIMBERLAKE, A. (2004). *A Reference Grammar of Russian*. New York: Cambridge University Press.

ZAKHAVA-NEKRASOVA, E. (1993). *Casos y preposiciones en el idioma ruso*. Madrid: Rubiños-1860.